

Sakana-Burunda bizikleta martxa bihar



Kirolak >> 13

Sakanako Parapente Eguna ospatuko da Iturmendin bihar. Hegan egiteko aukera, jan-edana, zozketak eta musika izanen dira



Kirolak >> 13

Euskararendako bidea eskatzen

Kontseiluak manifestaziora deitu du. Bihar Iruñean; 17:30ean

Gobernuari euskararen aldeko politika ausartagoak eskatzeko

Hartzen dituen neurriei babesar emanen zaiola esateko

>> 9



Festetan aniztasunaren aldeko egiteko kanpaina egiten du aurten ere Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak.

Komunalei buruzko jardunaldia

>> 7

Uhartetik iberoko omenaldira

>> 3

Munduko Arrozekin hitzordua

>> 6

Jaki bilketa gaur eta bihar

>> 3

Aniztasuna aldarri

>> 9



Floren Nazabalek aitortza jaso du herrian

>> 11



ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



ZORIONAK Nereita!
Segi beti bezain polita.
Etxekoen partez.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

4,00€

Bazkideek:

3,50€

Garagarrilak

3-9

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Rondalla Alaitasuna eta Trasteando.

Garagarriaren 4an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Vicios viejos. Garagarriaren 4an, larunbatean, 20:00etan Iturmendiko Ximona gaztetxean.

Arkada, Azterna eta Zartako. Garagarriaren 4an, larunbatean, 23:00etan Etxarri Aranazko gaztetxean.

Nazarenos del norte, Alerta Gorria eta Oso Basatis. Garagarriaren 4an, larunbatean, 23:30ean Iturmendiko plazan.

Ladies Braguís. Garagarriaren 5ean, igandean, 1:00etan Etxarri Aranazko kanpinean.

Motxila 21. Garagarriaren 5ean, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan.

Dantza

Dantza jaialdia. Garagarriaren 5ean, domekan, 18:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Altsasuko Musika eta Dantza eskolako ikasleak.

Antzerkia

Bihotz salataria. Garagarriaren 3an, ostiralean, 22:30ean Altsasuko gaztetxean. Atx teatroa.

Zirkoa

Erakustaldia. Garagarriaren 8an, asteazkenean, 17:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. Zirkio tailerreko ikasleak.

Zinema

La extraña elección. Garagarriaren 3an, ostiralean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Doan.

En todas as máns. Garagarriaren 4an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Doan.

Mendi irteerak

Altsasu-Balankaleku (korrika). Garagarriaren 5ean, domekan, 8:30ean, Altsasuko Foru plazatik. Dantzaleku Sakanako

mendi ataleko emakumeen taldea.

Azkenzale eguna, Auntzetxen.

Garagarriaren 5ean, igandean, 9:00etan Etxarri Aranatzten.

Bizikleta irteerak

Altsasu-Xabier. Garagarriaren 4an, larunbatean, 8:00etan Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. Zikloturista taldea. 125 km. Aldez aurretik izena eman.

XXI. Gurutzetako zeharkaldia.

Garagarriaren 5ean, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea. 50 km.

Erakusketak

Guk ibilitakoak gureak dira. Garagarriaren 3an, ostiralean, 18:00etatik 21:00etara eta garagarriaren 4an, larunbatean, 12:00etatik 14:30era eta 18:00etatik 20:30era Lakuntzako kultur etxean. Pello Mariñelarena Imazen lanak.

Lentzeria eta pintura. Garagarriaren 4an, larunbatean, 19:00etatik 21:00etara eta garagarriaren 5ean, domekan, 12:00etatik 14:30era eta 19:00etatik 21:00etara Olatzagutiko kultur etxean. Ikastaroetan egindako lanak.

Musikart III. Garagarriaren 6tik 10era, astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 19:00etara Etxarri Aranazko kultur etxean. Andra Mari ikastolako ikasleak.

Nafarroa 360°. Garagarriaren 14ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. Javier San Felipe Larrea.

Hitzaldiak

Tokiko garapenari buruzko mintegia.

Garagarriaren 8an, asteazkenean, 16:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. Hizlaria: **Iñigo Ruiz de Apodaka. Orkestra, Lehiakortasunerako Euskal Institutua.**

Tailerrak

Reiki. Garagarriaren 4ean eta 5ean, larunbatean eta igandean, Arbizuko kanpineko Amari aretoan.

Etxarriko bideen eta ahuntzetxe aterpearen ordenantzak. Garagarriaren 8an, asteazkenean, 18:00etan Etxarri Aranazko udaletxean. Parte-hartze prozesua.

Bestelakoak

Komunalak XXI. mendean jardunaldiak.

Garagarriaren 3an, ostiralean, 17:00etan eta garagarriaren 3an, larunbatean, 9:00etan Altsasuko Otadiako Kristo Deuna aterpetxean.

Altsun mutxikan. Garagarriaren 3an, ostiralean, 18:00etan Altsasuko Foru plazan (edo Itsasi euskaltegian). **Altsun Eskuaz.**

Etxarriko Kanpinaren 20. urteurrena.

Garagarriaren 3tik 5era, ostiraletik igandera, Etxarri Aranazko kanpinean. Ikus Guaixeko 6. orria.

Parapente eguna. Garagarriaren 4an, larunbatean, 9:00etatik aurrera Iturmendin.

Munduko Arrozak. Garagarriaren 4an, larunbatean, 10:00etan Irurtzungo Foru plazan.

Etxarriko gaztetxearen urteurrena.

Garagarriaren 4an, larunbatean, 12:00etatik aurrera Etxarri Aranatzten.

Udako festa. Garagarriaren 4an, larunbatean, 17:00etatik 01:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Deialdiak

Prekariatatearen kontrako giza katea.

Garagarriaren 3an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko enplegu bulegotik abiatuta.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garagarriaren 3an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garagarriaren 5ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzeak.

Ikasleak Libre! Garagarriaren 5ean, igandean, 18:00etan Etxarri Aranazko plazan kontzentrazioa.

Erabaki nahi duzu? Zatoz, gure garaia iritsi da. Garagarriaren 9an, ostegunetan, 19:30ean Altsasuko Gure Etxean. Altsasuko Gure Esku Dago.

SAKANA

Euskarazko literaturan IGota segitzeko gonbidapena

Maiatzarekin batera despedituta Ira-kurri, Gozatu eta Oparitu kanpaina. Euskaltzaleen Topaguneak eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak euskaldunen artean irakurzaletasuna sustatzea du helburu ekimenak. Liburutegietatik liburu maileguan hartu, hura irakurri gozatu eta bueltatzean galdera labur batzuk erantzunez liburu-dendetan liburuak erosterakoan deskontuak lortzen zituzten irakurleek. Gero, nahi zutenari oparitzeko. Hala egin dute makina bat sakandarrek. Eta haien artean ere 30 euroko deskontu txartelak zozketatu dira. Maiatzeko zozketako onuradunak honakoak izan dira: Ariane Sancho (Irurtzun), Eider Murugarren (Arbizu), Garazi Artieda (Etxarri Aranatz), June Etxeberria (Urdiain), Alfredo Alvaro (Altsasu), Beñat Lopez Gauna (Olatzagutia) eta Oihan Aldaz (Ziordia).

Arbizu

400/1000 kultur programa Uhartera eta Urdiainera

Kultura Zuzendaritza Nagusiak 400/1000 kultura programa berria aurkeztu du. 400 eta 1.000 biztanle arteko herrietara kultura eramate du helburu. Estreinako edizioan programak 40 herritara eramane du bere eskaintza, tartean daude Uharte Arakil eta Urdiain. Hilaren 10ean, Urdiainen Elorri taldeak irlandar kutsuko doinuak eskainiko ditu. Hilaren 17an, berriz, Uharte Arakilen Iddwac taldeak folk zeltakokantua eskainiko ditu.

Ostiralero SAIOA

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera Metropoli forala

9:00etatik 11:00etara

Esataria: Maider

Gaurko gaiak:

- Koldo Zuazorekin euskalkiaren berreskurapenaz
- Ikasleak Libre! kontzentrazioaren aurkezpene
- Immigrazio Zerbitzuaren Aniztasun kanpainaren aurkezpene

107.3 FM

beleixe

www.guaixe.eus-en-ON-LINE

EKONOMIA

LANGABEZIA %2,56 JAITSI DA: Maiatza akaberan hilaren hasieran baino 27 pertsona gutxiago zeuden izena emanda Al-

tsasuko Enplegu Bulegoan, 1.029. Altsasuko bulegoaren bidez 564 kontratu itxi ziren; haietatik soilik 34 ziren mugagabeak.

ezkaatza >>

>> Uharte-Arakil



Iberon joan den abenduan egindako indusketa. ARTXIBOA

Iberon hitzordua

Oltza Zendeako Udalak igandean, 12:00etan, Oroimena, Duintasuna eta Askatasuna ekitaldia antolatu du. Hara joateko Uharte Arakilen 11:00etan jarri dute hitzordua, plazan.

Iberoko Zurbau parajea, hiru gurutzeengainean, oroigarri bat mustuko da igande eguerdian. Haren bidez Oltza Zendeako Udalak 1936an udalerrian erail zituzten herritar guztiak eta Iberoko

paraje horretan opatutako hobian eraildakoak gogoan izan nahi ditu. Arantzadi zientzia elkarteak hobian 25 gorpuren bila aritu zen abenduko aurreneko asteburuan. Haien artean hiru uhartearren gorpu egon daitezke: Silverio Astiz Lakuntza eta Silverio Astiz Ezkurdia aita-semeak eta Victor Martiarena Irañeta. Hori dela eta, Uharte Arakil,

80 urte memoria galtzen taldeak herritarrak Iberora joatera animatu ditu. 11:00etan plazan jarri dute hitzordua. Bildutakoak autoetan joanen dira Iberora. Zurbau parajea 12:00etan mustuko da oroigarria. 14:00etan herri bazkaria izanen da. Bestalde, Ororbia-ko kiroldegian igandera arte argazki erakusketa ikusgai izanen da.

>> Arbizu

Udalaren aitortza 1936ko biktimei

Ekitaldi instituzional baten bidez Arbizuko Udalak 1936ko estatu kolpearen ondorioz hil edo errepresaliatu zituzten arbizuarrak gogoan izan zituen. Larunbat eguerdian egindako osoko bilkuran adierazpen instituzionala onartu zuen, zeinetan jaso den “faxismoak, errepresioa, gerra eta garai ilunak denbora luzerako” ezarri zituela. “Biktima zuzenek ez eze, herri osoak eta askatasunak ere jasan zituzten haren ondorio larriak”. Nafarroan frontierik ez zela izan eta “garbiketa politikoa” eginez 3.400 pertsona inguru hil zituztela gogorarazi zuten. Udalak nabarmendu zuenez, “gerraren ondoren, memoriaren desoreka izugarria gertatu zen irabazleen eta galtzaileen artean, diktadura osoan ere segida izan zuena eta frankismoa bukatutakoan ere zuzendugabegeldituzena”.

Amnistia Internazionalen esanak bere egin zituen udalak: “krimen horiek ez ziren inoiz inpartzialtasunez argitu, eta biktimen eskubideak ere ez zirelako sekula aintzat hartu”. **Aitortza** Orduko gertaerak ahanzturatik atera, aurrerantzean gogoan izan eta berrizhalakorik gerta ez dadin”, Arbizuko Udalak aitortza egin zien fusilatuak izan ziren lau arbizuarrak: Ricardo Olejua, Pedro Yabar, Juan Lakunza eta Miguel Flores. Aldi berean, udalak adierazi du 1936an Arbizuko Udaleko zinegotzi ziren Dionisio Mendinueta, Pedro Yabar eta Francisco Olaina kargutik kentzea “guztiz bidegabekoa izan zela, hautetsi legitimoak zirelako”. Horrekin batera, estatu kolpearen ondorioz, dela lana kenduta, dela gerrara joatera behartuta



Senitartekoei lore eskaintza egin zuten.

edo kartzelaturatu, errepresioa eta zigorra sufritu zuten arbizuarrak guztien memoria jaso nahi izan zuten udalak, “ondoko zerrendakoena eta baita ez dakizkigunena ere”: Fernando Yabar guarda, Julian Lapuente, Jaime Olejua, Andres

Maiza, Soledad Olejua eta Anunciacion Mendinueta maisu-maistrak, Inazio Goñi, Juan Goikoetxea apezka, Daniel Garziandia, Martin Flores eta Simon Arbizu. Aldi berean, Arbizuko Udalak erabaki zuen aitortza egitea “urte luzetan oina-

zea, beldurra, umiliazioa, arbuio instituzionala isiltasunean eta bakardadean, modu sistematiko eta planifikatuan jasan behar izan zuten familiei, bereziki emakumei, memoriarako eskubidea bera ere ukatu zitzaielako”. Azkenik, arbizuarrak “oroimen eta aitortza ekitaldiekin bategiteko” deia egin zien udalak. Elizaren atzeko aldean oroigarria mustu zuten larunbatean. Estatu kolpearen ondoren errepresaliatuak izan ziren eta eraildako lau arbizuarrak gogoan dituen plaka jarri zuten. Aurrekua dantzatu zen lehenik. 1936an hildakoak eta errepresaliatuak gogoan minutu bateko isilunea izan zen. Haien bi senidek olerki bana irakurri zuten (Joxe Azurmendiren *Suak erreko ez balu* eta Bide Ertzean taldearen *Haien bihotzen taupadak gara*). Ondoren bildutakoek lore eskaintza egin zuten. Trikitidoinuek *Eusko gudariak* kantuari bide eman zioten eta auzatearekin despiditu zen ekitaldia.

SAKANA



Dendatan bilketa egiteko kaxak jarriko dituzte boluntarioek.

Elikagai bilketa handia

Gaur eta bihar egingen da

Nafarroako Elikagai Bankuak jake bilketa handia egingen du gaur eta bihar. Nafarroako 77 herrietan eta 260 establezimenduetan jasoko dira jakeak. Sakanan ohiko tokietan. Nafarroako

Elikagai Bankutik sakandarrei dei egin diete ekimenarekin bat egin eta jakeak eman ditzaten. Jake bilketa antolatu duen erakundeak jakinarazi duenez, jasotakoa 30.000 nafar baino gehiago laguntzera bideratuko da, 7.700 familiari.

>> Irurtzun



Erabakitze eskubidea argitzen

Gure Esku Dagok deituta 200 pertsona inguru elkartu ziren ostiral gauean Irurtzungo plazan. 170 kri-

seilu saldu ziren. Haiek piztu eta aire-ratu zituzten irurtzundarrek eta arakildarrek, erabakitze eskubidearen alde daudela adierazi zuten. Gau sentikorra izan zen guztiendako. Arakilgo eta Irurtzungo Gure Esku Dago aurki bilduko da eta herri galdeketa erabakia hartuko du.

Euskaraz eta gaztelaraz

Irakasgai guztiak

Maila guztiak

Alain Senar

akademia • academia

INGENIARI INDUSTRIALA 606 053 076

Egubera, 14 | ALTSASU

948 460 037 Arbizu

948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak

SALMENTA

Mekanika

Elektrizitatea

Txapa

Margotzea



Marian Mendiola

Memoriaren haritik tiraka

astekoa

Duela aste batzuk, Guaixe berean, ezker-eskuin, memoriaren hariari tiraka zebiltzan bi albiste zeuden. Bata, Zoila Berastegirena, duela lauorogei urte gertatutako estatu kolpearen ondorioak jasan zituzten “herenegungo haiei” entzuteko aldarria eginez. Bestea, isildutako en minari Olaztik eskainitako ohorezko lekua- ren bueltan. Biak ala biak memoria historikoaz, baina, nahigabe- an begiak pasarte motx batean tenkatu zitzaizkidan: “11 emaku- meri ilea moztu eta publikoki umiliatu zituzten”. Olaztin 11 emakume zenbatu dituzte, baina

zenbaki horri beste adiera bat ere eman geniezaioke: zentzu zaba- lean, mugagabea; hamaika ema- kumek nozitu zutelako horrela- koak eta gehiago.

Ziur asko, emakumezkoak izan ziren irain sozial gehien jasan zutenak. Ilea moztu edota kaxka- lo uzten zituzten, gero herriko leku jendetsuenetatik paseatze- ko, errizino-olioa edatera derri- gortu, kaketan behera joateko, eta soinean ikur faxista-falangistak eramatera behartzen zituzten, publikoki ideologia horretako aldarrikapen eta esloganak adie- razi eta oihukatzen derrigortze-

az gain.

Horrelako beste makina bat arrazoi tarteko, memoriaren matxaren hariari tira eta tira egi- ten dioten ekimenek gurean darraite: Arbizuko 1936ko erre- presaliatuei omenaldia, Gerra Zibila eta Emakumeak hitzaldia, erakusketak, Iortia Antzerki Tal- dearen antzerkia, Osoportilloko exhumazioa... Altxamendu Mili- tarraren eta Diktaduraren garai- ko memoria historikoa berresku- ratzeko eta urteetan izandako ahanzturarekin amaitzeko gogoa pil-pilean dago. Isilean gorde den emakume-gizonen ahotza argi-

tan jartzeko ahalegin eta urrats horiek baliagarriak izango zaiz- kigu; “herenegungo haien” borro- ka, sufrikarioak, uxeneak (gabe- zia), tristura, beldurra eta umi- lazioak ezagutzeko; baita beren indarra, adorea, sakrifizioa eta ahalduzaren berri izateko ere.

Hurrengo belaunaldiei transmi- titzeko garrantzitsutzat hartzen den jakintza da memoria kolekti- boak. Testigantza isilduak nik neuk ere jaso izan ditut, arbaso- en kontu-istorio-historiaren jarraitzaile sutsuak nituelako aldamenean, aita eta anaia. Fal- tan sentitzen ditut.

hara zer dien

Ekintza positiboak?

Ikastetxeetan askotan egiten genuen moduan, denok dakiguna- ren errepaso bat proposatzen dizuegu.

Aspalditik, Munduko Bigarren Gerra bukatu zenetik, ezagutzen dugu “aukera berdintasunaren printzipioa”. Pertsona guztiok bizi sozial, pribatu, kultural, eko- nomiko eta politikoan aurrera egiteko aukera berdina izan behar genituzkeela esan nahi dugu termino horrekin..

Jakin ere badakigu, ia momen- tu beretik, zer den “gizon eta ema- kumeen arteko aukera berdinta- sunaren printzipioa”: bizi publi- ko eta pribatuko arlo guztietan parte hartze orekatu eta pareki- dea, baldintza, ikusgarritasun, autonomia eta erantzukizun ber- dinekin. Zertarako? Emakumeok eta gizonak emaitzak berdina izan ditzagun.

Printzipioak lortzeko konpromi- soa eta lana egin behar direnez, gure gizarteak hau betetzeko estrategia bat asmatu du: “Ekin- tza Positiboak”. Horrela, denon ustez ona den araua aplikatzeko: “berdinak direnak berdina trata- tzea eta desberdinak direnak des- berdina”. Eta, errepasoari jarrai- tuz, hau noiztik? Aurreko men- dearen hirurogei hamarkadatik, Diskriminazioaren aurkako Zuzenbidearekin.

Badugulortzeko helburua, bidea gidatzeko printzipioa, aplikatzeko zuzenbidea, zergatik ez dira mar- txan jarri ekintza positiboak? Noiz eta nola ez dakitelako? Ba, hona hemen egoera bat: PGAk esaten digu Nafarroan 2015eko langabe- zia tasa 2014koa baino 1,4 puntu murriztagoa dela. genero ikus- puntutik irakurrita: gizonen lan- gabezia tasa 3 puntu jaitsi dela; emakumeena, ordez, 0,3 igo dela.

Altsasun, 2015eko apirilean 723 langabetu zeuden, 309 gizon eta 414 emakume, % 57,26. Aurtengo api- rilean 582 langabetu daude, 217 gizon eta 365 emakume, % 62,71. Beraz ‘krisitik ateratze honetan’ emakumeen langabezia tasa igo egin dela ikus dezakegun. Hemen- dik, legalki eta erakunde guztien gomendioetan oinarriturik, lan- enplegarloan ekintza positiboak martxan jartzeko eskatzen dugu. Gure gizartean enplegua ez da sol- data soilik, baizik eta eskubide zibil asko disfrutatzeko iturria.

Sakanako Emakumeen Bilgunea

barrutik kanpora

Udalak garapenerako bidean

2011n adostutako ibilbide orria biribildu egin da Mankomunita- teak eta Nafarroako Gobernuak berriki sinatu duten hitzarmena- rekin. Aurten 58 ekintza garatze- ko 250.000 euroko ekarpena. Hitzarmenak muga batzuk izan arren –berandu sinatua, urte bakarrekoa, eskatutakoaren nabarmen azpitik...– aukerak irekiditu: laugarpen agente kon- tratatu dira, Gobernuarekin elkarlanerako markoa finkatu du, eta bide honetan arduraz, serio eta eraginkortasunez goa- zela frogatzeko parada ematen du.

Plan Estrategikoa burutzeko Sakanako 15 udalek jokabide pro- aktiboa izatea komeni da. Arris- kua baitago dena Garapen Agen- tziaren eta Cederna-Garalurren bizkarrean uzteko, eta pentsa- tzeko sortu dugun garapen-arki- tektura, plan estrategikoa eta hitzarmenarekin dena eginda dagoela. Arriskua dago epe motzeko, azaleko eta marketin- gari begirako politikan murgil- tzeke. Anbiziari gabe. Eta gure ekonomia eta gizarteari begira aurrera eta hobeto jarduteko aukera paregabea igarotzen uzte-

ko. Orain arte egindakoak, ordea, eraldaketarako oinarriak baino ez ditu finkatu. Egitasmo interes- garri batzuk abian dira. Baina udalak arkitektura honetan txer- tatuko balira, ekimen ahalmena eta eraginkortasuna biderkatu- ko lirateke.

Ez dirudi erraza. Gai berria da. Inertziak eta kontserbadorismoa gainditu behar dira eta ikasi egin behar da. Horretarako parada dago Garapen Agentziak ekaine- an antolatutako hiru mintegie- tan. Udal arduradunek eta tekni- kariak –idazkariak, kontu-har- tzaileak...– aukera izango dute, nazioarteko adituen eskutik bes- teak beste, tokiko garapena zer den, nola eraikitzen eta gauzatzen den ikasteko. 2014an udal guztiek aho batez Plan Estrategikoa onar-

tzeaz gain, “udalen parte-hartze politiko eta teknikoa oinarritzot- zat” jo zuten, eta harremaneta- rako eta dinamizaziorako zine- gotzi eta udal teknikari bat izen- datzea erabaki zuten. Bada garaia erabaki hori betetzeko.

Plan Estrategikoko hainbatekin- tza udalei dagokie. Datozen urte- etarako inbertsio planak adostu behar dira. 6-8 garapen agenteek ondoan 15 udal proaktibo, berri- tzaile eta ekintzaile badituzte, gara- penerako makinaria koipeztatu eta eraginkorra izango dugu. Bai, gure bailaran enplegua eta ongi- zatea sustatzeari; bai, nazioarte- an Sakana erreferentziatzeko “smart territory”, lurralde adimendune- an bihurtzeari.

Sakantzen Sarea

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

gutziak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza, 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.eus edo 948 564 275 telefonoa.**

Ekainaren 5ean 18:00etan Etxarrin: IKASLEAK LIBRE!

Iñigo Orella Altzueta. LAB Irakaskuntza

Pasa zen asteen, Polizia Naziona- lak lau adin txikiko atxilotu zituen, horietako bi Andra Mari Ikasto- lako ikasleak ziren. Iruñeko poli- zia-etxean abokatuaren laguntzaz deklaratu ondoren, aske gelditu ziren. Martxoaren 17an izandako LOMCEren aurkako ikasle pro- testan desordena publikoa eta

autoritatearen aurkako atenta- tua leporatu diete. Aurretik bes- te 18 gazte atxilotu zituzten.

Adin txikikoak gurasoak eta Ikastola abisatu gabe kalean poli- zia kaputxadunek atxilotu zituz- ten. Aukera bazeukaten deklaraz- teko hitzordua helarazteko, bai- na nahiago izan zuten gazteak eta bere ingurukoak izutuko zituen beste modu hau erabiltzea.

Zoritzarrez azken garaietan ikusten ari gara nola kazetariak,

antzerkigileak, txiolariak, sindi- kalistak, e.a. adierazpen askata- suna erabiltzeagatik atxilotuak diren. Gaurko marko legalak eskubide zibil eta politikoak kolo- kan jartzen ditu. Jarrera kritikoa, ezadostasuna azaltzea, gure buruaren jabe izatea, aniztasun sozial eta politikoa zigortzen dira. Kasu honetan, inposatutako LOMCEren aurkako ikasleen bidezko borroka jendetsua krimi- nalizatu nahi da.

Hezkuntza eragileei LOMCE legeari aurre egiteaz gain, dei egi- ten diegu egunez egun eta ikas- tetxez ikastetxe gure Hezkuntza Sistema Propioaren eraikuntzan inplikatzeko.

Hau guztia dela eta, igandean arratsaldeko 18:00etan Etxarri Aranatzeko plazan “IKASLEAK LIBRE!” lelopean Libre! eta Ikas- le Abertzaleak deituriko kon- tzentrazioan parte hartzea gon- bitea luzatu nahi dugu.

Guaixe



ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILA: Garbiñe Navarro Rodríguez • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso
ZUZENTZAILEA: Patxi Flores Lazkoz
ARGITARATZAILA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhua Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus

ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikako Salburordetza

Enneco Bidelagun elkarteko kide Bidelagun, Sakanako turismo elkarteak ki-de berria du: Enneco, haritzaren memoria interpretazio parkea. Bidelagun elkarteko

Alfonso Nuñek egin dio harrera Ennecori. Sakanako turismoa sustatzea du helburu Bidelagun elkarteak eta 33 kide ditu.

sakanerria >>

>> **Altsasu**

Zuazo: euskalkiak badauka balio afektibo bat

Altsasuko euskalkia berreskuratzeko nahia duen Altsun Eskuaz taldeak Koldo Zuazo hizkuntzalaria hitzaldia ematera gonbidatu zuen. Ehundik gora pertsona elkartu ziren ostiralean. Altsasuarrak ziren gehien gehienak, bakaikuarren bat eta urdiaindarren bat bal-

din bazeuden ere. Bataz-beste ko adina 20 urte azpitik egonen zen. Eta ordu batez Zuazok esatekoak zituenak adi-adi entzun zituzten.

Altsun mutxikan

Altsasun jolasean; euskalkio hitzekin eta esapideekin jolaste-

ko proposamena da. Hori da Altsun Eskuaz taldeak ostiralerako egin duen deialdia. 18:00etan Foru plazan elkartuko dira (Itsasi euskaltegian eguraldiak laguntzen ez badu). Bestalde, taldeak euskalkia- ren hitzak ezagutarazteko hiztegi xumea argitaratu du bi astero.



Koldo Zuazo Altsasun hitzaldiaren aurretik.

gertutik >>

Koldo Zuazo

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta euskalkietan aditua

Hitzaldia euskara batuaren defentsa eginez hasi duzu. Ez euskara batuaren defentsa, hizkuntzaren defentsa baizik. Euskara batua hizkuntza horren zati bat da; oso positiboa dena, onura asko ekarri diguna, baina egokitu edo osatu egin behar dugula ikusten da. Euskara batua ez da hizkuntza osoa. Euskara batua aparte beste hizkera batzuk ere badaude: lagunekin gauden edo ez, gertuko jendearekin gauden edo urrunekoekin gauden, lanbideko jendearekin gauden edo ez... Norekin gauden, hizkera bat erabili behar da. Gure egoerak ere badaude: batzuetan pozik gaude, besteetan haserre, beste batzuetan triste, batzuetan maitasuna adierazi nahi dugu... Egoera bakoitzak hizkera bat eskatzen digu. Horren inportantzia agerira ekarri nahi izan dut.

Oinetako pareekin alderatu duzu. Zer da hobeto oinetako pare bakarra izatea edo pare asko edukitzea? Onena da pare asko edukitzea, horri esker joan ahalko garrelako errekarra, hondartzara, mendira, eski egitera, bizikletan ibiltzera... Hizkuntzarekin berdin gertatzen da. Zenbat eta hizkun-

tza zabalagoa eta zenbat eta hizkera gehiago ditugun hizkuntza horretan orduan eta egoera gehiagotan erabili ahalko dugu.

Orduan, euskara onena? Egoera bakoitzean hari dagokiona.

Altsasuko euskara berreskuratu behar da? Edo Burundakoa? Ematen du Burundako euskara, sei herri hauetako euskara nahiko berdina zela. Beti esaten da hitz bat eta beste modu batean esaten zela han eta hemen. Baina egitura berdina da sei herrietan. Orduan, berreskuratu beharko duguna Burundako euskara hori da.

Ahalegin partekatua sei herrietan? Bai. Arrazoi askorengatik. Azken batean, hizkuntza bat aurrera ateratzeko zenbat eta hitzun gehiago egon hobeto delako. Bestalde, edozein ekintza egiten badugu, horrek kostu bat izanen du eta zenbat eta gehiagoren artean banatzen dugun kostu hori merkeago aterako zaigu.

Zertarako balio du euskalkiak? Arrazoi askorengatik. Euskalkiak euskara bizia dira. Hizkuntza honi jokia, zukua atera nahi badiogu, nora joko dugu? Liburuetara? Bai,

liburuetara ere bai. Baina, batez ere, bizirik dagoen euskara horretara jo beharko dugu. Niretako hori da euskalkiek daukaten balioetako bat. Bestea, azken batean, nire kasuan eibartar egiten banau zerbaitek, hizkuntza da. Beste batek arbizuar egiten duena Arbizuko euskara da. Eta urdindar bat urdindar egiten duena, Urdiaingo euskara da. Hizkuntzak badauka balio afektibo bat. Badu balio emozional bat. Euskalkiak ere badu balio hori. Ez dugu asko aprobetxatu balio hori. Galtzen utzi dugu. Eta behar bada hori da arrazoi bat esplikatzeko duena zergatik Euskal Herriko bazter askotan euskara dakitenak asko diren eta erabiltzen dutenak gutxiago. Lortuko bagenu hizkuntzaren eta hiztunaren artean identifikazio hori egotea, nik uste gehiago erabiliko genukeela. Hori ikusten da hemen, Altsuko gazteen artean: ausartu direla euren arteko hartu-eman euskaraz egitera. Eta badira ehun gaztetik gora elkartu direnak eta euren hartu-eman euskaraz da. Hori oso positiboa da.

Beraz, etorkizuna? Ematen du baietz. Aspaldiko dinamika izan zen euskara utzi eta erdara hartu. Orain ikusten dugu sektorerik inportanteena, gazteena, bertoko euskararen alde. Eta hori positiboa da.

Euskal Herrian horrelako beste

esperientziarik ezagutzen duzu? Ezagutzen dut maila partikularrean; pertsona batzuk bizi direla ez dakit zein herritan eta herri horretako euskara ikasi dutenak. Maila kolektiboan ere: Aezkoan bada talde bat; Zaraitzun joan den urtean antolatu zen ikastaro bat eta Erronkarin ere egin dira. Altsasukoak daukan berezitasuna da kopurua; jende asko ari dela. Ekintza bera ez da originala, beste leku batzuetan egin delako. Hemen go berezitasuna da ehun lagunetik gora elkartu direla horretarako.

Nolakoa beharko luke berreskuratze prozesu honek? Zer aholkatzen diezu? Zaila da aholkatzea. Azken batean heldulekuak eurek topatu behar dituzte. Hoberena da eurak ikustea nondik jo. Nik esan dudana da ez uzteko luzarorako. Pentsatzeko ondo zer egin, baina behin pentsatu eta erabaki eta gero, lehenbailehen bidean ibiltzen hastea. Beste ideia zen, gazteengandik eta Altsuko gazteengandik sortu dela ideia, baina komeni dela adineko jendea ere, jende jarria ere inplikatzeko. Eta sei herrietako lagunak ere inplikatzeko.

Saretzea. Hori da. Nik uste dut Burundan horrek indarra hartzen badu, eragina eta oihartzuna izanen duela, ez dakit... ez naiz ausartzen Euskal Herria osoan, baina behintzat bai Sakanan eta behar bada Ara-

bako gertuko alderdietan. **Helburua lorgarria da?** Dudarik gabe. Ezagutzen ditut adibide batzuk. Adibide bat Oñati-koa da. Oso herri erdalduna zen lehen eta gaur egun gazteen arazoa izaten da askotan gaztelaniaz hitz egiteko gauza ez direla. Eta Oñati bezala Markina. Ez dakit zer gertatu den herri horietan. Ez da izan agintariengandik etorri den kontu bat. Herritarrengandik sortu den gauza bat izan da. Ez da hemengoren moduko iraultza, pum, bat-batean gertatu dena. Baina hor ere gertatu da. Lortu da herri nahiko erdaldunak izatetik euskaldunak izatera.

Zer sentitzen da ehun gazteren aurrean, haiek deituta, hitz egitea? Sekulako pozak. Gainera, ni ez naiz hemengoa, baina arrotza ere ez naiz. Egon naiz Urdiainen. Beti tristura sortzen zidan, ze hemen go euskara da ezagutzen dudana bereziena. Ez da inori pelota egiteko. Bereziena da. Bereziena bere kokagune geografikoagatik gehien bat. Gipuzkoarekin eta Arabarekin egiten du muga. Araba garai batean euskalduna izan da. Orduan, hemen egiten den euskararen osagai diferente horiek ikusten dira. Oso euskara berezia da. Ikusten nuen galtzen ari zela eta horrek tristura sortzen zidan. Orain ikustea jende gaztea berriro burundar izateko gogoia daukala, ba sekulako ilusioa egiten dit.

Sexu indarkeriagatik bi atxilotu

Emakume batek etxean tratatuak jasotzen zituela salatu zuen eta larunbaten Foruzaingoak 30 urteko altsasuar bat atxilotu zuen. Iruñeko epaitegira eraman zuten gizona. Bestalde, Foruzaingoak 45 urteko gizon poloniarra atxilotu zuen hilaren 19an. Kamioi gidaria ogibidez, bere bikotekidea, Burgosko emakume bat, gasolindegia batean uzten

saiatu zen eztabaida baten erdian. Emakumeak aurretik antzekoak pasa izan zituela salatu zuen. Gainera, mehatxuak jasan eta gertaerak ez salatzea derrigor- tu zuela ere salatu zuen. Gizona Iruñeko 1. Emakumeengana- ko Indarkeri Epaitegira eraman zuten. Sexu erasoak salatze- ko 112 telefonora hots egin daiteke.

nerea cenoz
nutrición

Giza Elikaduran eta Dietetikan Diplomaturak (Nafarroako Unibertsitatea)

info@nereacenoz.com
nereacenoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonon
Estafeta 16, atzea · Lakuntza
(Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

9 lagunendako

TAXIA

Jon Kordon

948 500 388 / 629 428 025

IRURTZUN

>> Irurtzun

Kultur-aniztasunaren gastronomia festa

Larunbatean, 10:00etatik aurrera Irurtzongo Foru plazan Munduko Arrozak dastatu, haurrek munduko jolasetan aritzeko, henna tailerra, sentsibilizazio txokoa, sentsibilizazio kanpainako kamixeten salmenta eta beste izanen dira

Munduko Arrozak ekimena berriz bueltanda, Irurtzun kultur anitza dela erakusteko. Munduari beso-zabalik agertu zaion herrian kultur aberastasun ikaragarria dagoelako. Horregatik, egiten da Munduko Arrozak ekimena Irurtzunen. Bego Zestauk Sakana-ko Mankomunitateko Immigrazio teknikariak gaineratu duenez,

helburua da kultura ezberdinak dituzten irurtzundarren artean hurbiltasuna eta hartu-emanerako guneak sortzea, horrela, herri-tarren eta kulturen arteko elkarbizitza, topaketa, eta ezagutza erraztuz.

Goizeko 10:00etan jarriko dira plazako estalpean kultura ezberdinetako irurtzundarrak arrozaprestatzen. Nork bere erara. Munduguztarian jaten den elikagaia da arroza eta Senegalgo, Marokoko, Gambia-ko eta Irurtzongo erara hura prestatzeko erabiltzen dituzten "sekre-tuak" ezagutzeko aparteko auke-



Bertako zaporeak, kultura aniztetaoak dastatzeko izanen dira Irurtzunen.

ra izanen da. Sukaldariak euren lana despeditzean hura dastatzera emanen dute. Hala ere, ez da lehia-keta izanen, erakustaldia baizik.

Gastronomia ez da dena izanen eta hainbat kulturatako ikurrak ezagutzeko aukera izanen da. Mank-eko zerbitzutik irurtzundarrak bihar plazara hurbiltzera, begiratzera, galdetzera, proposatzera, parte-hartzera, dastatzera, jolastera, dantzatzera, apaintze-ra... azken batean Irurtzongo kulturen senidetzeaz gozatzera gon-

bidatu ditu.

Harira

Zopa moduko bat da Marokotik etorritako sakandarrek prestatutako dutena. Arabiar sinestunek astelehenean hasiko dute urteroko baraualdia, Ramadama. Data ger-tu dagoela baliatuta, "haiendako haingarrantzitsua den hilabeteerlijiosoan prestatzen duten jakia irurtzundarrendako egitea erabakita dute. Beraz, haien kulturaren beste ikur bat ezagutzeko aukera da".

>> Etxarri Aranatz

Kanpinak 20 urte, eta asteburua ospatzeko

Lau izarreko kanpina da, maila gorenekoa. Bungalowetan eta aterpean 50na plaza ditu eta 125 plazetan beste 500 pertsonendako tokia

Danbolintxulon dagoen Etxarri Aranazko kanpina, hasieratik, 1996an zabaldu zenetik kudeatzen dute Floren Vicentek eta Montse-rrat Lopezek. Eta asteburuan urteurrena ospatuko dute. Vicentek Bioitza kanpineko eskarmentua zuen ordurako: "Nafarroako Gobernuak Urbasa-Andia natur parke izendatzean kanpaldi libre arautu beharra ikusi zuen eta horrela sortu zen Bioitzako kanpina 1992an".

95ean utzi zuen Vicentek eta Cederna-Garalurren bidez jakin zuen Etxarrin egitasmoa zegoela. "Ideia zaila zen kanpin eta turismo kulturarik ez zegoelako". Erronkari heldu eta lehen lauzpabost urteak "zailak" izan zirela gogorarazi digu Vicentek: "bezeroak sortu eta inbertsioa egin behar zen". Aldi hori pasata, egitasmoa egonkortzen hasi zen eta horrekin batera inbertsioak egiten hasi ziren. Azken handia 2007an izan zen aldagela, taberna eta jatetxea berritzearekin batera squash pista eta kirole-tarako pista egin zirenean. Vicentek azaldu digunez, "eten-gabeko eboluzioan dagoen arloa da. Inbertsioak egitera behar-tzen zaitu. Haria galtzen baduzu bezeroa galtzen duzu". Haiek inbertsioekin asmatu eta lehia-korrek direla uste du Vicentek.

Bezeroak eta Enneco

Bizkaia, Nafarroa eta Katalunia-



Floren Vicente eta Montse Lopez, kanpineko kudeatzaileak.

koak dira bezero gehienak Etxarri Aranazko kanpinean. Udan holandar eta frantziar batzuk ere izan daitezke. Beneluxko (Belgika, Herbehereak eta Luxenburgo) bezeroa landu dute, horretarako hainbat azoketara joan direlarik. "Ez da inbasioa, osagarria da. Berdea eta mendia gustatzen zaie. Familian etortzen dira eta jatetxean afaltzen dute. Errespetu handikoa da eta gauza bera eskatzen du, ordutegiak betetzea, garbitasuna... Kanpinetan ibiltzen tradizioa dute". Udatik kanpo pasan diren ingelesak geltokia ere bada.

Azken aldian ETBn kanpinaren publizitatea ikusi da. Vicentek eman digu arrazoiak: "Iparralde landunahi dugu. Ingurune ederra eta euskalduna nahi duten familien eskaera dago. Haien seme-alabek euskara praktikatu nahi duten familiak dira". Bestalde, aurt-

ren memoria interpretazio parkeak Sakanan, Etxarri Aranatz-en eta kanpinean izanen duen garrantzia nabarmendu du Vicentek. "Gaur egun aterpera Lehen Hezkuntzako ikasleak etortzen dira eta Etxarriko Mugaie enpresarekin jarduerak egiten dituzte. Ennecok DBH-ko ikasleak erakarriko ditu. Zein ikasle mota diren aztertu behar-ko litzateke eta horren arabera aterpea handitu. Konponketa, behintzat behar du". Enneco mar-txan jartzen denerako haiek kanpinaren kudeaketa utzi eginen dute, 2018ko abenduan bukatzen da kontratua. Vicentek esan digu-nez, "ordurako adin bat izanen dugu eta beste gauza batzuk egiteko garaia izanen da".

Kanpinaren aldamenean erakitzen ari den Enneco, haritza-

Igerilekua

Pasa den larunbatean zabaldu zituen ateak igerilekuak eta irailaren 11ra arte zabalik egonenda. "Eguraldiak laguntzen badu, sasoi-egun batzuk luzatuko genuke". Igerilekua erabili nahi dutenek sasoi guztirako txartela kanpinean bertan egin dezakete. Aurtun berri-tasun bat dago, familia ugari-ek deskontua izanen dute: %20 fami-liako kide guztiek txartela ateratzen badute eta %10 soilik fami-liako kide batzuk badira.

Egitaraua

- >> **Garagarriak 3, ostirala**
20:00etan Pintxo-potea.
23:00etan Karaokea (garagardoek eta konbinatuek prezio berezia).
- >> **Garagarriak 4, larunbata**
11:30etik 13:30era Puzgarriak eta aparra.
16:00etatik 19:00etara Puzgarriak eta aparra.
20:00etatik 21:30era Pintxo potea.
21:30ean Afari berezia.
1:00etan Ladies Bragies hirukotearen emanaldia.
- >> **Garagarriak 5, igandea**
12:00etatik 14:00etara Potea txarangak alaituta.
14:30ean Herri bazkaria.

Oharrak: Eguraldiagatik ekintzaren bat ez bada egiten, beste egunen batean eginen da. Larunbateko eta igandeko menuak kanpineko tabernan ikusgai daude.

>> Arbizu

Udarako begiraleak

Arbizuko Udalak festetako goize-tan haurrendako tailerrak antola-tuko ditu. Gainera, garilaren 1etik 31ra bitarteko astegunetan, 10:30etik 13:30era haurrendako aisialdi eskaintza egingen du. Arbi-zuko Udalaran bi eskaintza horie-tan begirale gisa lan egin nahi dute-nek hilaren 15era arteko epea dute izena emateko. Curriculumak idaz-karitzatza@arbizu.eus e-posta helbide-ra bidali beharko da. Hautagaiek derrigorrez begirale titulua edo ira-kasletza ikasketak eta EGA edo baliokidea izan beharko dute. Bes-tela proba egin beharko dute. Hezi-tzaileek haurrekin derrigorrez eus-karaz hitz egin beharko dute eta haien arteko elkarriketak euskaraz iza-tera bideratu beharko dute.

SAKANA

Matematiketan ongi

Zenbaki artean iaioa dela erakutsi du Altsasu institutuko Mikel Igoa Lasa ikasleak. XXX. Matematika Olinpia-da Cintruenigon jokatu zen maia-tzaren 21ean. 145 gaztek parte har-tu zuten proban, bi ordu zituzten 6 buruketa argitzeko. Onenak Adriana Lara Cabestrero (Lizarralde BHI) eta Xabier Lakidain Maldonado (San Fermin Ikastola) izan ziren. Santan-darren jokatu den estatuko olin-piadarako sailkatu zen bikotea. Biga-rrenak Nicolas Ayucar Sanchez (Itu-rrama BHI) eta Mikel Igoa Lasa izan ziren. Santanderreko proban Nafar-roa ordezkatzu hiru gazte joan behar dira eta zozketan Mikelek ez zuen zortea alde izan.

>> Etxarri Aranatz

Gaztetxiek 9 urte

Eta, horregatik, Etxarri Aranazko Gaz-te Asanbladak urteurren egitarau-e prestatu dau. 12:00etan Dux-i ome-naldia eginen dobie Andra Mayen. Hurre despedituta, han bertan, auza-tie yonen da. Gazteiek bazkaltzia jun-tetuko die hirurek aldia eta atsald-eko seiatatik aurrera trikopoteuen ibil-kodie. Urteurren festa despeditzeko, 23:00etatik aurrera, Arkada, Aztar-na eta Zartako taldien kontzertu-bek yonen die gaztetxien.

>> Uharte Arakil



Galizia dastatuz

Sakana guztiko jende asko pasa da asteburuan Uharte Arakilgo plaza-tik. Karpapean zegoen pulpeiroak prestatutako jakiak dastatzera jen-dearen joan etorri handia izan zen. Giro onean joan da asteburua eta Galiziako dantzeekin gozatzeko auke-ra ere izan zuten larunbat arratsal-dean pasa zirenak.

SAKANA

Komunalen etorkizunaz

Mende honetan komunalen egitekoa zein den aztertuko da gaur eta bihar Altsasun eginen den jardunaldian

Sakanako Plan Estrategikoa garatarakoan sortutako kezkatik abiatuta antolatu da Komunala XXI. Mendean jardunaldia. Sakanako Garapen Agentziako Iker Mante-rolak nabarmendu digunez, “orain arte komunalek herritarrei bizi-tzeko elementuak eman dizkiote. Gaur egun hori galtzen ari da”. Hori horrela, “XXI. mendean komunalak zer izan behar duen aztertuko da jardunaldietan” azaldu digu, Manterolak; jardunaldian erantzun nahiko diren galderetako batzuk luzatuz: “zein helburu izan behar ditu komunalak, lanpostuak sortzeko tresna izan


Egitaraua

>> **Garagarriak 3, ostirala 17:00 etatik 17:30era** Jardunaldien aurkezpena.
17:30etik 18:00etara Komunalen gobernantza ona, hitzaldi-eztabaida (Sergio Couto, iComunales).
18:00etatik 19:30era Herritarren parte-hartzea komunalen gobernantzan: egungo egoera eta etorkizunerako hausnarketak, tailerra.
20:00etan La extraña elección, dokumentala Iortian, doan.
>> **Garagarriak 4, larunbata 9:00etatik 12:30era** Komunalak Ekimenaren I. asanblada.

behar du...”
Gaur eta biharko jardunaldiak Altsasuko Otadiako Kristo Deuna aterpetxean izanen dira, Zelai

lComunales Ekimena, Espainiar Estatuan zehar, ura, lurrak, baliabideak eta eskubide komunalak kudeatzen dituzten komunitateek osatzen dute. Haien helburua, gobernantza sistema komunal hauen babes eta aitortza egitea da, eta modu berezian bere balore sozial, natural eta ekonomikoak babestu eta indartzea.
12:30etik 14:00era Komunalak Ekimenaren lantaldeak. Lantalde tematikoen (basogintza, parte-hartzea, ikerketa...) garapenerako dinamika bideratua. Tailerraren 1. atala.
14:30etik 16:00etara Bazkaria.
16:00etatik 19:30era Komunalak Ekimenaren lantaldeak. Tailerraren 2. atala.
20:00etan En todas as máns, dokumentala Iortian. Doan.

kalea 91. Bi egunetan Iortia kultur gunean herri lurrekin lotutako filmak ikusteko aukera izanen da. Iniciativa Comunales, Sakana-



Mendia, herri lurrak.

ko Garapen Agentzia, Altsasuko Udala, Aralarko Elkarte eta Fundación Entretantos dira jardunaldia antolatu dutenak.

Tokiko garapenari buruzko mintegia

Garagartzaroko aurreneko hiru asteazkenetan Altsasuko Iortia kultur gunean izanen dira, 16:30ean hasita

Tokiko garapenari buruzko mintegia atzo hasi zen. Francisco Alburquerque Ekonomia eta Enpresa Zientzietan doktoreak (Madrilgo Complutense Unibertsitatea) mustutze hitzaldia eman zuen. Hizlariak lehenik azpimarratu zuen garapena ez dela soilik ekonomikoa, tokian duen eragina ere badela. “Arazo soziala da, ekonomikoa baino”. Bestetik, eskualdeko aktoreak identifikatu eta haien arteko elkarlanaren alde egin zuen. Behetik gora, herritarretatik erakundeetara, eraikitzearen alde agertu zen, goiko erakundeen laguntzarekin. Ezinbesteko jo zuen eskualde egiturak indartzea, norberak bere lana egitea eta erakundeen arteko komunikazioa sustatu beharra dagoela gaineratu zuen.
Horrekin guztiarekin batera, ingurumen jasagarritasunaren alde azaldu zen: “epe luzera begiratu beharra dago. Orain gastu bat dirudiena etorkizunean inbertsioa



Alburquerqueren hitzaldia eta gero, mintegia bi hitzaldi gehiagok osatuko dute.

izan daiteke”. Prestakuntzan eta ekoizpenean dauden eragileen elkarlana aldarrikatu zuen. Garapena kate gisa ikusteko eskatu zuen (lehengaiaren jatorria, eraldatzeko modua, energia, hondakinak...) Teknologia berriak erabili katebegi bakoitzean hobetu beharrekoa zer den identifikatu eta horrela hobetu daitekeela adiera-

zi zuen.
Sakanako Mankomunitatearen eta Sakanako Garapen Agentziaren ekimen horrekin ibarreko hainbat alorretako eragileak tokiko garapena kudeatzeko politikan trebatu nahi dituzte. Beraz, Sakanaren garapenean ariko den guztia dago gonbidatuta. Mintegira joaten direnek Tokiko

Egitaraua

>> **Garagarriak 8, asteazkena**
Orkestra, Lehiakortasunerako Euskal Institutua (www.orkestra.deusto.es/eu/). Iñigo Ruiz de Apodakak Deustuko Unibertsitateak Deustu Fundazioaren bidez sustatzen duen ekimenaren berri emanen du. Orkestrak hainbat ikerketa lerro erabiliz lehiakortasuna eta lurralde garapena ikertzen ditu.

>> **Garagarriak 15, asteazkena**
Azaro fundazioa (www.azarofundazioa.com). Ainhua Arrizubieta Zabalak Lea Artibai eskualdean enpresa berriak sortu eta enpresa sarearen lehiakortasuna hobetzea helburu duen fundazioaren berri emanen du.

garapenari buruzko informazio orokorra jasoko dute (tokiko garapena kontestuan jarri, lurraldearen ezaugarrietan oinarrituriko politikak, Europatik datozen ereduak...), eskualdeko garapen estrategiak nola eraiki diren eta nola artikulatzen ikasteko balio du eta tokiko garapen estrategietan jarduera ildo esanguratsuenen adibide praktikoak (arrakasta kasuak) ezagutzeko aukera emanen du.

Hondakin plana, errausketarik gabe hobe

Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko 2016-2025 Plan Integratuaren parte hartzeko prozesuaren barruan eskualde bilera izan zen Irurtzunen astelehenean. Mendialdea, Araxes eta Sakanako mankomunitateetako ordezkariak eta herritarrek elkartu ziren. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuko ordezkariak lehen bilera txandan jaso zituzten ia 2.000 ekarpenen laburpena egin zuten. Teknikariak nabarmendu zuten helburue-

kin, herritarren kontzientzia hartzearekin eta gobernantza eredu bakarrarekin adostasun handia dago. Planaren zirriborroan jasodenez, Sakanan konpostatze plan bat eta puntu garbi batzuk sortzea aurreikusten du.
Planaren inguruko Irurtzungo aurreneko bileran inolako errausketak ereduaren eta errefusa errausketietarako erregai bihurtzearen kontra azaldu ziren. Teknikariak jakinarazi zuten lege kontsulta eskatu dute, planean errausketa-

rik ez jasotzeak Europako araudiaren kontra jo dezakeelako. Europako hondakinen hierarkiaren arabera azken aurrekoa hondakinen balorizazioa da eta azken aukera hondakindegia. Asteleheneko bileran bildutakoek edozein errausketa motaren kontra azaldu ziren eta hura planean jasota egoteagatik kezka azaldu zuten. Eskatutako lege txostena publiko egitea eskatu zuten eta, aldi berean, errefusa ahalik eta gutxien izateko apustua egiteko eta alternatibak lantzeko eskatu zuten. Azken horren barruan paisaien eta harrobien lehengoratzea aipatu zituzten.
Planari ekarpenak egiteko epea larunbatean despidituko da. Nafa-

rraoko Gobernuak plana hilaren 30ean aurkeztu nahi du, bi hilabetez jendaurrean egon, irailean onartu eta udazkenean indarrean sartzeko.



Irurtzunen hondakinez hitz egiten.

Non erabili

EKIN **ALTSASU**
100€ko erosketengatik 10€ko deskontu balea (beherapenetan izan ezik).

IZASKUN BEUNZA ARKITEKTOA **ALTSASU**
%10eko deskontua obra berri eta eraikuntza berri proiektuetan, %20a ziurtagiri energetikoan eta energia fakturaren irakurketa eta analisisia doan.

IOSUNE MARAURI **ALTSASU**
Bakarkako sesioetan %5eko deskontua.

KIKI ARGAZKI DENDA **ALTSASU**
15x20 cm-ko 8 argazkiko erreportaje batean beste bi argazki opari.

TANIA ARRAINDEGIA **LAKUNTZA**
50€ko gastuarerkin, etxeko produktua doan.

LAKUNTZAKO OSTATUA **LAKUNTZA**
Menuarekin, kafea edo kopa doan.

ZURE EKO DENDA **IRURTZUN**
€10 eko deskontua kontsulta terapeutikoetan.

HOTEL OLATZEA **ARBIZU**
Eguneko menuarekin, kafea doan, menu bereziarekin, txupittoa doan.

ETXARRI HORTZ KLINIKA **ETXARRI ARANATZ**
%10eko deskontua garbiketetan.

www.guaixe.eus-en zerrenda osoa ikusgai

BAZKIDETZA 50€ 948 564 275

SAKANA**Prekarietatearen kontrako giza katea gaur****19:00etan, Altsasuko Enplegu Bulegotik abiatuko da**

Sakanan lan eta bizitza duin bat izatearen alde, Prekarietaterik ez! lelopean giza katea deitu du gaur, ostiralean, sakandar talde batek. “Berriki jakin dugu bailaran 500 lanpostu sortu direla, eta datu positiboa da hori, baina lan baldintzen kaskartzea ematen ari da gaur egun eta hori salatu nahi dugu” adierazi dute. Giza katea 19:00etan abiatuko da Altsasuko Enplegu Bulegotik, eta “prekarietate egoera honi alternatiba badagoela aldarrikatzeko” egin dute deialdia.

5 aldarrikapen nagusi

Ekimenarekin 5 aldarrikapen nagusi egin nahi dituzte. Batetik, enplegu duinaren aldeko aldarri-

**Hainbat sakandarrek gaurko giza katean parte-hartzera deitzen.**

kapena eta langabeziari aurre egitea. 35 orduko lanaldia, 1.200 euroko soldata, aparteko orduak ez sartzea, lan erreforma eta malgutasun neurririk ez izatea aldarrikatzen dute. “Gure bailaran sortzen den aberastasunaren eta lana-

ren banaketa justu batek gure bailarako etorkizuna bermatuko duela” jazo behar dutela gaineratzen dute.

Bigarrenik, beharturiko emigrazioari ezetz esaten diote. “Gaz-

te sakandarrei gure herria uztera kondenatzen gaituzte. Honen aurrean lan enplegu politika berriak behar dira” diote. Hirugarrenik, aukera berdintasuna aldarrikatzen dute. “Sexu aniztasuna, jatorri aniztasuna, ideologia aniztasuna... errespetatu behar da, aniztasuna balioan jarri eta lan munduan, kontratazioetan eta lan baldintzetan diskriminaziorik ez onartzea. Lan berdina, soldata berdina. Jakina, sexuaren arabera lan banaketarekin bukatu behar da” diote.

Laugarrenik, euskararen alde egiten dute. “Euskaraz lan eta bizi nahi dugu; euskarak lan hizkuntza behar du”. Eta, bosgarrenik, Sakanan lan eta bizitzaren aldeko hautua egiten dute. “Horretarako Sakanatik Sakanarako eredu sozioekonomikoa defendatzen dugu”.

Lizarraga**Portuko harrobiaren baimenaz**

Ingurumenaren alde lan egiten duen Gurelur taldeak Lizarragako portuaren ondoan dagoen harrobia lege kanpoko dela salatu du berriki. Gurelurrek dioenez, enpresari harrobia ustiatzeko epea 1997an iraungi zitzaion. Landa Garapen, Toki Administrazio eta Ingurumen Departamentuak salaketari harrobia legeko dela esaten duen txosten batekin erantzun dio. Han jasotzen denez, enpresak 2023ko abenduaren 28ra arteko epea du harrobia ustiatzeko.

Lizarragako tuneleko harrobia ustiatzeko aurreneko baimena 1946an eman zuten aurreneko. 1983an berri zuten. 1990ean Manufacturas de Productos Minerales SL enpresak eskatu zuen hura ustiatzen segitzeko baimena. Txostena Deierriko Udalean zabaldu zuten baina enpresak ez zuen jarduera baimenik jaso eta administrazio “isiltasunagatik jasotzat hartu zen”. 1993an emandako ebazpen batek 30 urterako baimena eman zion enpresari, beste bi epetan 90 urtera arte luzatu daitekeena.

SAKANA**LAB-jubilatuak-ek batzarra egingen du Altsasun**

Sindikatu abertzaleko helduen eta pentsiodunen saileko Hego Euskal Herriko ordezkariak Altsasun egingen dute. Ikasturtean zehar egingakoa aztertu eta etorkizuneko eginkizunak zehaztuko dituzte batzar horretan. Horien artean dago gutxieneko pentsioduina eskatzeko Herri Ekimen Legegilea.

**Atrezzo sakandarra Iruñeko Ingurumen egunerako**

Ingurumenaren Mundu Eguna dela eta Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak egitaraua antolatu dute. *Nafarroan ekonomia ekologikoagoaren alde* leloa duen ekimenak gaur hasi eta hilaren 11ra arte iraunen du. Iruñeko Gotorlekuan eta Aranzadin eta Bertizko natur parkean garatuko da egitaraua. Sakanako Birziklaketa Laborategia arduratu da beharrezko ziren mahai eta aulkiak hornitzeaz. Taberna ere haiek egingakoa da. Sakanako Birziklaketa Laborategiak Iruñean egun hauetarako jarri duen guztia berreskuratutako materialekin egin dago.

Uharte Arakil / Etxarri Aranzatz**Ikasleak LIBRE! lelopean elkarretaratzea igandean****Aurreko astean adin-txikiko bi ikasle sakandarren atxilotzea salatuko da Etxarri Aranzatzko plazan etzi, 18:00etan**

Aurreko asteko asteazkenean Espainiako Poliziak 15 urteko uhartear bat eta etxarriar bat atxilotu zituen. Operazio berean Iruñerrian beste bi lagun atzeman zituzten. Lautatik hiruk 15 urte zituzten. Martxoaren 17ko ikasle-en greban desordena publikoa eta autoritatearen kontrako atentatu leporatzen diete. Sakandarren kasuan, Andra Mari ikastolara joateko etxetik atera zenean atxilotu zuten etxarriarra, eta ikastolara joateko etxean gosaltzen ari zela, aldiz, uhartearra. Iruñeko polizia etxera eraman, eta ondoren aske utzi zituzten.

Gertakarien aurrean, Etxarri Aranzatzko udalak, LAB sindikatuak, Sortuk, Etxarri Aranzatzko Gazte Asanbladak, Euskal Herrian Euskarazek, Bilgune Feministak, Andra Mari ikastolako langile batzordeak eta Kitzikak igandean elkarretaratzea deitu dute Etxarri Aranzatzko plazan,

18:00etan, *A. eta I. LIBRE! Ikasleak LIBRE!* lelopean. Aipatu erakunde, talde eta eragileen iritziz “poliziaren gehiegikeri berri baten aurrean gaude. 1989ko Haurren Eskubideei Buruzko Konbentzioak jasotzen du adin txikikoekin erlasionaturiko erabakiak bere interes gorena zainduz hartuko direla beti. Gazte hauek deklaratzera deitu ahal zituzten alde aurretik eguna eta ordua jakinarazita. Nahiago izan zuten, ordea, inor abisatu gabe gazteak eraman. Beldurtzeko? Presionatzeko? Urdurtzeko? Ziurrenik euren deklarazioak baldintzatze-ko aukeratu zuten atxilotetak modu horretan egitea, eta hau oso larria da, deklarazioak determinanteak direlako epaileak zigorra egongo den ala ez erabakitze-ko orduan”.

Adin txikiko pertsonen “eskubideez, euren bizitzaz eta etorkizunaz” ari direla nabarmendu ondoren, igandeko elkarretaratzearekin, poliziaren gehiegikeria salatzeaz gain, “guraso, irakasle eta herri-

**Bi ikasleen atxilotetaz gertatutako protesta egingen da Etxarri Aranzatzko plazan.**

tar garen heinean adin-txikikoak babesteko ardura eta eskubideen defentsa” betetzen ari direla gaineratu dute sinatzaileek. “Ez dituzte gure seme-alabak, gure ikasleak, gure gaztetxoak eramango” adierazi dute. Eta gizarte guztiari deitu diote igandean Etxarri Aranzatzko plazan egingo den elkarretaratzearekin bat egitera, “haien eskubi-

deak defendatzen, gure etorkizuna eraikitzen ari garela”.

Mozioa

Etxarri Aranzatzko Udalak atxilotetak salatzearen mozioa onartu du, EH Bilduren aldeko eta PPko kontrako botoarekin.

Altsasu**Otadiko auzo-konpostagailua.****Hasi dira auzo-konpostarekin**

Maiatzaren 16az geroztik 49 familia altsasuar auzo-konposta egiten ari dira. Otain jarritako auzo-konpostagailuan 35 etxetako materia organikoa pilatzen hasi dira. Han dagoeneko kopurua bete da eta ez da gehiago onartu. Zabalgunean, Navarro Villoslada ikastetxea izan zenaren ondoan dagoen auzo-konpostagailuan, berriz, 14 familia ari dira euren hondakin organikoa kudeatzen. Bes-

te 21 familiek eman dezakete izena. Horretarako, Sakanako Mankomunitatera, 948 464 867 telefonora, hots egin dezakete.

Bestalde, Zabalguneko auzo-konpostagailuaz galdetu dio udalak Sakanako Mankomunitateari. Haur eskola izan den eraikinaren ondoan dago Hondakin Zerbitzutik azaldu duten ez duela zergatik arazorik sortu behar, baina bestela beste kokapen bat bilatuko litzatekeela.

Uharte Arakil/Altsasu**Foruzaingoak jasotako eskaerak**

112 Sos Nafarroa telefonoaren bidez herritarrek gaztigatuta Foruzaingoak asteburuan bi kasutan esku hartu du. Herritarrek gaztigatuta Foruzaingoak patruila bat Uharte Arakilera bidali zuen, antza gazte talde batek jotzeko hitzordua zuelako. Domekan, berriz, Altsasun ibaian izandako isuria ikertu zuen Foruzaingoak. Ondarria industrialdearen atzeko aldean izan zen.

SAKANA

Euskararendako bide eske


Kontseiluak manifestaziora deitu du bihar Iruñera; 17:30ean Golemetik abiatuko da. Nafarroako Gobernuari euskararen aldeko politika ausartagoak eskatuko zaizkio eta, aldi berean, hartzen dituen neurrietan babesa emanen zaiola adierazi nahi da

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak nafar euskaltzaleak manifestaziora deitu ditu. Bide eman euskarari. Euskaraz bizi nahi dugu leola izanen du bihar-ko manifestazioak. Duela sei urte euskaraz bizitzeko nahia adierazi genuen makina batek Iruñean. Orduko hartan Nafarroako Gobernuak hartutako neurrien kontra protesta egiteko izan zen. Gobernu aldaketa izan den honetan, euskaraz bizitzeko aldarria berriro Iruñeko kaleetara eramanez dugu nafarrok. Nafarroako Gobernuari euskararen aldeko neurriak hartzeko eskatu eta euskarari bide ematen dion neurrian babestuko dugula adierazteko.

Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbaok joan den urtean Anaitasunan egindako ekitaldia gogora ekarri zuen, aldaketa euskaratik eman behar dela aldarrikatuz.

Orduko hartan euskara berreskuratzeko lau zutabe sendo behar direla adierazi zen: lege marko egokia, hizkuntza politikaren planifikazioa, baliabide egokiak edo inbertsioa eta, azkenik, komunitatea. Euskaltzaleak bihar Nafarroako Gobernuari eskatuko diote euskarari bide emateko, “neurri ausartak hartuz. Hizkuntza-politika eragingarri batek emango dio bide euskarari. Jauzia egiteko garaia dela uste dugu.”

Kontseiluan “kezkaz hartu genuen Euskararen lege murriztailea aldaketaren Gobernuaren desadostasunetan sartu izana. Eta, uste dugu, honez gero, bestelako neurriak hartuak egon zitezkeela, besteak beste, euskararen desagertzea eragiten zuen 29/2003 Dekretua, etab. Nafarroako administrazioa euskalduntzeko plan- gintza abian jartzea ere ezinbestekotzat jotzen dugu. Eta baliabideetan, abenduan aurrekontuen azterketan adierazi bezala, jauzia eman behar delakoan gaude”. Horregatik, hizkuntzaren aldeko



Euskaraz bizi nahi du eskaerak joan den urtean Anaitasuna bete zuen. Bihar Iruñeko kaleak.

“neurri eragingarriagoak hartzeko, eta ondorioz, euskarari bide emateko eskatuko dugu”, azaldu du Kontseiluko eledunak.

Bilbaok argudiatu duenez, euskarari bide ematea “justiziazkoa da, oreka soziala bermatzeko beharrezkoa delako. Harritu gaitu azken hilabeteotan hizkuntza- eskubideen bermeari begira har-

tu diren erabaki batzuek zer-nola-ko erantzuna jaso duten. Eta hori ere azpimarratu behar dela uste dugu, neurri eta keinu batzuk egon dira. Halere, harritu ez ezik, haserretu ere egin gaitu, batzuk nola aztoratu diren, are gehiago kontzeptu batzuk oso modu inter- satuan erabili direlako. Benetako eztabaida saihestu nahi izan

dute: berdintasuna erdiesteko, herritar guztien eskubideak behar bezala bermatzeko, gizartean bizi- kidetza egongo dela segurtatzeko... Horretarako guztirako neurriak hartu behar dira. Hori guztia ere agerian utzi nahi dugu bihar”. Manifestazioak herrialdean euskaraz bizi nahi duten nafarrak ere badirela erakusteko balioko du.

Altsasu



Hortzak zorroztu: badatoz Pintxo Asteburuak!

Ekainaren 3tik 5era eta 10etik 12ra bitartean, Xurru osatzen duten taberne primerako gutziak eskainiko dituzte

Altsasuko Tabernen Xurru elkar- teak -Arkangoa, Gautxori, Koxka, Lezea, Urtzi eta Xume- antolatuta, asteburu honetan hasiko dira 2016ko Pintxo Asteburuak. Aurten bi aste- burutangozatu ahal izango da taber- na hauek antolatutako pintxo bere- ziez: ekainak 3 eta 5 arteko aste- buruan eta ekainaren 10etik 12ra arteko asteburuan.

SARIAK

Aipatu taberne primerako gutziak prestatu dituzte Pintxo Asteburuak ekimenerako. 2,20 eurotan, moka- du oso finez gozatzeko aukera izan- go da. Pintxo dastatzearekin bate- ra Xurru te prestatutako txartela sinatuz gero, primerako sarien zoz- ketan parte hartzeko aukera izan- go da. Guztira 6 afari eta 100 euro- ko 6 sari zozketatuko dira. On egin!

SAKANA

Lau balio aniztasuna gure egiteko

Immigrazio Zerbitzuak aniztasuna, berdintasuna, errespetua eta diskriminaziorik eza aldarrikatzeko kanpaina martxan jarri du

Sakanako Mankomunitateko Immi- grazio Zerbitzuak joan den urtean martxan jarri zuen migrazio eta migratzaileen inguruko aurreiritzi, estereotipo eta zurrumurruei aurre egiteko. Horretarako lau balio sus- tatu zituen sakandarren artean: aniztasuna, berdintasuna, erres- petua eta diskriminaziorik eza. Kanpainak harrera ona izan zuen eta ibilbidea duela iritzita, Immi- grazio Zerbitzuak mezu hori zabal- tzen eta osatzen segitzea erabaki du.

Kanpaina festa giroan garatuko da aurtien ere, “baikorrago, abegi- korrago aurkitzen garenez (kanpo- tik datozenak onartzeko, gurearen- gatik desberdina dena onartzeko), une egokitzat jotzen dugu jai giro- an hastea kanpaina. Izan ere, denok gozatuko dugu zenbat eta errespe- tu gehiagoz jokatu, zenbat eta ber- dintasun gehiago izan, gure porta- erek zenbat eta diskriminazio eza gehiago izan eta aniztasunari biho- tza zenbat eta gehiago zabaltu orduan eta kabida eta gozamen gehiago denondako.

Joan den urtean bezala, aurtien ere txupinazo garaian udaletxe- tan zintzilik izanen da Aniztasun kanpainaren logotipoa den biho- tza. Suziria botako dutenek ere iru- di hori duten kamixetak jantziak izanen dituzte eta herrietako fes- ta egitarauetan ikurra ikusgai izan- en da. Horrekin batera, aurtien- go berrikuntza da Sakanako hain-



Aniztasunaren aldeko kanpaina Irurtzenen bihar abiatuko da. Arduradunak eta udal ordezkariak aurkezpenean.

bat esparru eta jatorri aniztetako pertsona ezagunekin kartelak egin direla. Guztiek ere kanpainako lau baloreen alde egitera deituz. Udan zehar hiru kartel ezberdin eta haietan hainbat aurpegi eza- gun ikusteko aukera izanen da. Aldi berean, aurpegi horiek zabal- tzen duten mezua pankarta bate- an ere izanen da, txupinazoz txu- pinaz. Azkenik, Pirritx, Porrotxeta Marimotots pailazoak kanpain- arako bideoa grabatu dute, Mank- en webgunean ikusgai dagoena eta sare sozialen bidez zabaltzeko dena.

Festetan sakandar guztiek kan- painako lau balioekin bat egiteko aukera izanen dute. Batetik, 5 euro- tan kamixeta erosiz edo leloarekin argazkia eginez eta zerbitzura bida- liz. Zestau sakandar guztiak, harre- ra gizartea eta etorkin aniztasu- naren kudeaketan dugun egiteko- ari heltzeko deia egin du.

Zergatia

Zerbitzuko teknikari Bego Zestau Baraibarrek adierazi duenez, “gero eta gizarte aniztagoan bizi gara eta etorkizuna ere hala dator, anizta. Etorkizuna modu baiko- rrean kudeatzeko, maite ditugun lau balore horiek, gureak ditugu- nak, sakandar guztien bihotzeta- ra iristea nahi dugu.” Kanpain- aren helburua migrazio eta etor- kinen inguruan jatorri, egoera juridiko-administratibo, sinis- men, ohitura, kultura, erlijio, hizkuntza ezberdinetako sakan- darrak hausnarketara gonbida- tzea da. Barrura begiratzeko eta erabiltzen dugun hizkeraren inguruan hausnartzeko. “Esate- rako, beltza hitza negatiboarekin lotzen dugu. Ohartu ondoren, gure jarrera aldatuz, pertsona orori dagokion berezko duinta- suna ez mintzeko”.

Aniztasuna

ANIZTASUNA
BERDINTASUNA
ERRESPETUA
DISKRIMINAZIO EZA

Maite ditut aniztasuna, berdintasuna, errespetua eta diskriminaziorik eza. Horixe adierazten du kanpainako irudiak. “Han daramatzagu eta gure bihotzetik, gure barrenetik kanpora ateratzen dira, indarrez. Horregatik daude kolore biziak; gogo betez, alaia eta baikor, aniztasuna kudeatzeko. Hondo beltza du Sakanan larruazal beltza eta iluna duten pertsonak ere bizi direlako”.



GRUPO TANATORIO


IRACHE

TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com



Martin Lazkano Azpiroz

I. Urteurrena

Adiorik gabe,
dantza dezagun
azken balsa

Bere aldeko oroimen elizkizuna
igandean, 11:00etan, Lakuntzako elizan

Bikaionea etxekuek
Lakuntzan



Alejandra Orayen Oroz

Manuel Mundiñano Ezkutari

Ez du bere sorterrria uzten,
sekula joan ez denak.

Etxekoak



Hainbat aukera

Galdetu

948 564 275



Martin Huici Igoa

Beti gure bihotzean

Meza Etxarri Aranzako elizan,
ekainaren 5ean, igandean, eguerdiko 12:00etan

Anai-arrebak Fernando eta Petra; ilobak

Alberto Artola • Jorge Otxoa

Larunbateko kintoen ospakizunean
gurekin egongo zarete



Lakuntzako 76ko kintoak

Juan Luis Zubillaga Lazkoz

Egun berezi honetan,
gurekin sentitzen zaitugu



Lakuntzako zure kintoak

Esther Iglesias Cavia

Oskar gure lankidearen ama



Arrano Beltza Herri Eskola



Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun
argazki
eta testuarekin



948 564 275
Foru plaza, 23-1
Altsasu
gk@gkomunikazioa.eus

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 ERRENTARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorian@guaixe.eus

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Etxebizitza lursailarekin salgai Etxarri Aranzaten. 4 gela, 2 komun, sukalde-egongela, garajea eta 130 metro karratuko lursaila. Interesatuak deitu 676 92 71 65 telefonora.

Pisua salgai Altsasun. Jantzita. Tel 618 19 07 24.

Etxe bat saltzen da Lakuntzan. 76 m², beheko solairua da eskailerarik gabe, eta 187 m²ko lur-saila borda batekin. Tel 948 46 15 94.

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Etxe bat baratzarekin alokatzen da Bakaikun. 690 34 39 78 telefonora hots egin.

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Lizarragako Azi Iturri elkartea alokagai. San Adringo festetan. Enkantea ekainaren 5ean goizeko 12:00etan Azi Iturri elkartean. Gutxienez 600 €. Festak ekainaren 18an, 19an eta 20an.

Lizarragan taberna-jatetxea alokatzen da. Zugain taberna zegoen etxea alokatzen da. Interesa duenak deitu zenbaki hauetara: 943 308

318 / 943 458 649.

Unanuko Denok Bat Elkartea alokatzen da festetarako. Uztailaren 1etik 3ra. Informaziorako deitu 671 61 89 99 telefonora.

Aitziber elkarteko taberna alokatzen da San Pedroko uztailako eta Aitziberko abuztuko festetarako, uztailak 2tik 6ra eta abuztuak 14 eta 15. Esleipena enkante prozedura erabiliz egingo da, edozein bazkide lehentasunez hartzeko eskubidearekin. Alokairuan irteeraren prezioa 2.000 €. Interesa duten guztiek, Aitziber elkartean aurkeztu behar dute, ekainaren 15ean, iluntzeko 20:00etan, eskaintza ekonomikoa sobre itxi batean sartuta. Informazio gehiago aitziberelkar-

tea@gmail.com helbidearen bitartez.

Lana / Negozioak

LAN ESKAINTZA

Urdiaingo Udalak aisialdirako begiralea behar du. EGA ezinbestekoa, magisteritza ikasketak, CV-ak udaletxean jasoko dira edo bidali hona: urdiain1@urdiainudala.e.telefonica.net

Denetarik

SALGAI

Olaztiko Coop. Transportes Sakanan plaza bat salgai erretiroagatik.
Tel 670 27 64 57.

JAIOTZAK

- Iker San Millan Saez de Muniaín, maiatzaren 21ean Altsasun.
- Lia Urtasun Roy, maiatzaren 25ean Iturmendin.
- Imran Missaoui, maiatzaren 27an Lakuntzan.
- Leire Maiza Goikoetxea, maiatzaren 30ean Lakuntzan

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

MENDIA

BALANKALEKURA EMAKUMEEKIN: Dantzaleku Sakana klubeko mendi ataletik sortutako emakumeen taldea aurreko astean

hasi zen martxan. Arania-Saraben ibili ziren. Igandean 8:30ean jarri dute hitzordua, Altsasuko plazan, Balankalekura joateko.

kirola >>

Pilota



Adur Lasak Garferekin Etxarrin debutatuko du

Ekainaren 18an Xalarekin bikotea osatuko du Lasa IV.ak, Titinen eta Beginoren kontra aritzeko

Garfeenpresaerrioxarrak pilotari bat gehiagodu bere plantilan: Adur Lasa. Etxarriarrak 2016-2017 denboraldirako sinatu du Garferekin. Orain arte afizionatuen mailan aritu da Adur Lasa, azkenaldian Doneztebeko Erreka klubean, baina ekainaren 18an Garfe enpresarekin debutatuko du Oscar Lasa pilotari handiaren ilobak, Lasa IV.a izenarekin. Etxarri Aranazko frontoian debutatuko du Lasa IV.ak, ekainaren 18an, larunbatean, 22:00etan hasiko den jaialdian. Atzelari etxarriar gazteak Xalarekin osatuko du bikotea, Titinen eta Beginoren kontra aritzeko.



XLV. Olaztiko San Migel Txapelketa: 6. jardunaldia ate joka

Asteburuan XLV. Olaztiko San Migel Elkarteak Pilota Txapelketa-ko 6. jardunaldia jokatu da.

6. jardunaldia

Ostiralean, 20:00etan
3.maila: Mendoza-Mendoza / Alegria-Imaz
2. maila: Martinez-Flores / Gorriti-Irañeta
Nagusia: Azketa-Atxa / Txapuso-Labaka
1.maila: Etxeberria-Ansotegi / Ijurrea-Zubieta
Larunbatean, 17:00etan
3.maila: Peito-Ondatz / Urtzi-Grados
2.maila: Bazkez-Igoa / Barban-Xestero
1.maila: Zelaia-Grados / Sanz-Arana

Aizkora

Nazabalen azken aizkorakadak

Erkuden Ruiz Barroso eta Maider Betelu

2015ean Etxarri Aranatzeko jokatu-tako Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketan hura bere “azken plaza” izango zela esan zuen Floren Nazabalek. Baina azken aizkorakadak igandean eman zituen, “bere” plazan. Izan ere, Sakanako Aizkora Eskolak, Etxarri Aranazko udalaren laguntzarekin, omenaldi beroa egin zion igandean.

Omenaldira Nazabalek urte luze hauetan izandako plazako lagunak egon ziren. 45 aizkolari inguru bildu ziren, Aitzol Atutxa, Iñaki Azurmendi, Jon Rekondo, Miel Mindegia, Donato Larretxea eta beste hainbat eta hainbat. Jaki-na, Sakanako aizkolariak ere bertan ziren, Resano, Juanjo Erdozia, Goizeder Beltza eta beste. Aizkolari txikietatik hasita, helduetaraino, erakustaldi politak ikusi ahal izan ziren. Baita Sakanako Harri Jasotze Eskola eta Izeta eta Ostolaza harri jasotzaileen eskoletako neska-mutikoen altxaldiak eta trontza erakustaldiak ere.

“Etxarriko plaza beti izango da zurea”

“Omenaldi xumea egin nahi izan diogu, bera halakoa delako” adierazi zuen Sakanako Aizkora Eskolako Goizeder Beltza aizkolariak. Etxarriko alkate Eneka Maizek Nazabalen lana goraipatu zuen. “Asko diogu eskertzeko etxarriarrok Floren Nazabali. Floren garai guztietako aizkolaririk onenetakoa da, eta aizkolaritza maila gorengorenera eraman du. Eta hori guz-

Oso eskertuta eta herri kirolen familiaz inguratuta



2 urteko Oihan semearekin enbor bat moztu behar zuen, baina haurraren azken uneko lotsagatik, Nazabalek bakarrik aurre egin zion enborrari. Horiek izan ziren bere azken aizkorakadak. Nazabalek, hunkitua, eskerrak eman zizkion herriari eta udalari, baita omenaldia antolatu eta parte hartu zuten kirolari guztiei. “Ez nuen halako omenaldirik espero. Jende asko etorri da, plazako kide guztiak. Eta hori eskertzekoa da. Gustura sentitzen naiz” adierazi zuen. Urte luze hauetan bizitako “denarekin” gelditzen dela aipatu zuen. “Euskal Herria ezagutu dut eta jende asko. Horrekin geratzen naiz. Eta baita gaurko egunarekin ere” nabarmendu zuen. Nazabalek aitortu zuen aizkora beste modu batean uztea gustatuko liizaiokeela, txapel batekin, baina gauzak datozen bezala hartu behar direla. Familiari egin zion eskertza, ibilbide honetan berarekin gehien gozatu baina gehien sufritu dutelako ere bai. Ekitaldia herri bazkari jendetsuarekin despeditu zen.

tia Floren egunero-egunero, urtero-urtero lanari emana egon delako. Bizitza osoa kirolari eskainia. Aizkolari prestua, erregularra, paregabea. Betiere, dotoreziaz eta apaltasunez. Eta txapelketatik eta ospetik aparte aizkolaritzarekiko transmisioan egindako lana eskertzekoa da. Hemengo aizkolaritza eskola berak, beste kide batzuekin batera, sustatutako eskola da, indar handia hartu duena. Eskola erreferentziala. Lan herrikoia, parte hartzailea. Txapelik eta dominarik gabeko lana, baina saririk handiena mereziko lukeena, dudarik gabe” nabarmendu zuen Maizek, Nazabalek Etxarri Aranatz herriari Euskal Herri osoan emandako ospea eskertuz. “Etxarriko plaza beti izango da zurea. Zu beti izan-

go zara gure plazako enborra” aitortu zuen alkateak.

Ohorezko aurreikusua eta oroigarria jaso ondoren, Sakanako Aizkora Eskolako kideek hartu zuten hitza. “Melankoliak jotzen badu, badaki non gauden” adierazi zuten. Aitor Urteagak eskainitako bertsoan, Nazabal beraien eredu dela nabarmendu zuen, bai aizkolari eta baita pertsona bezala. Oroigarria eta txapel berezia, Nazabalek maitasun handiz gordeko duena, eskaini zioten gero.

Txapeldun handia

Aita eta osaba aizkolariak ziren eta haiengatik sortu zitzaion grina. 12 urterekin egin zuen bere lehendabiziko plaza, Iruñeko Sanduzelai auzoan. 14 urterekin,

anaiarekin batera, Euskadiko Gazte Mailako Txapelketa irabazi zuen. Ordutik, Euskal Herriko plaza askotan egon da. Puntako aizkolaria, txapeldun handia izan da. Kirolari gutxik lortu dute Nazabalek lortutako palmarena. Euskal Herriko Aizkora Txapelketako 6 txapel ditu, Nafarroako I. Mailako 9 txapel eta Urrezko Aizkora-ko 9 txapel, tartean. Munduko Aizkolarien Txapelketako txapelduna izan zen Joxe Mari Olasagastirekin. Tamalez, gerrialdian izandako arazoez, disko-hernia tarteko, ibilbidea zaildu egin zioten. Asko sufritu ondoren, azkenean aizkora utzi egin behar izan zuen 2015eko Nafarroako Lehen Mailako finala jokatu eta 2.a sailkatu ondoren.

Pilota

Donezteberen kontra ezin

Herrien Arteko Txapelketa, 4. jardunaldia: Doneztebe 4 / Arbizu 0

Kimuak: Ilarregi-Agata (Doneztebe) 18 / Imaz-Larraza (Arbizu) 10
Haurrak: Loiarde-Agirre (Doneztebe) 18 / Ganboa-Lima (Arbizu) 11
Jubenilak: Salaberria-Mariekurrena (Doneztebe) 22 / Nazabal-Petriati (Arbizu) 3
Seniorrak: Bakaikoa-Gorriti (Doneztebe) 22 / Arruti-Agirre (Arbizu) 5

Herrien Arteko Txapelketan, Doneztebe da liderra (31 puntu) eta Arbi-



zu 4.a (23 puntu). Asteburuan Arbizuk Barañain izango du arerio.



Nork jantziko ditu Irurtzungo txapelak?

XXIV. Irurtzungo Pilota Txapelketako finalak bihar jokatu dira, 17:00etan

Martxoaren bukaeran hasi zen XXIV. Irurtzungo Pilota Txapelketa eta bihar, larunbatean, despedituko da. Tarte honetan afizionatuen mailako puntako pilotariak pasa dira Irurtzundik. Hasierako ligaxka, final laurdenak eta final erdienen ondoren, final handiak jokatu dira bihar, 17:00etan, Irurtzungo Biaizpe pilotalekuan.

Seniorren final handian, Alberto Ongay satrustegiarrak Tabarrekin osatuko du bikotea, Yoldi eta Gorriti uhartearraren kontra aritzeko. Sakanan geratuko da txapela, baina zein herritan hori bihar erabakiko da. Eta 22 urtez azpiko finalean Zudairek eta Eskudero Mugiro eta Agirre izanen dituzte aurkari.



XXIV. Irurtzungo Pilota Txapelketako finalak

Larunbatean, 17:00etan, 22 urtez azpian:
Zudaire-Eskudero / Mugiro-Agirre
Seniorren 3. eta 4. postua:
Urkizu-Altuna / Apezetxea-Arratibel
Seniorrak:
Ongay-Tabar / Yoldi-Gorriti

Irristaketa

Zangozatik bi lehenengo sari



Sakana Irristaketa Taldeko 5 irristalarik parte hartu zuten joan zen larunbatean Zangozan jokatu-tako Zangoza Hiria VII. irristaketa proban. 350 metroko herri zirkuitua prestatu zen Zangozan, eta bertan egin ziren lasterketak. Sakanako bost irristalari hauetatik bik bi lehenengo sari ekarri zituzten.

Mendia

Lakuntza-Aralar lasterketarako izena ematea zabalik

Garagarriaren 12an jokatuko da Lakuntza-Aralar mendilasterketa, Zabalarte klubak antolatuta. Aurten bi ibilbide daude aukeran: luzea, ohikoa (24,7 km), eta motza (13,3 km). Izena ematea zabalik dago www.lakuntza-aralar.com weborrian.



Luciarnaga Elkartearen alde

Nafarroako Asperger sindromea eta TEA duten pertsonen senitartekoak biltzen dituen Luciarnaga Elkartea lagunduko du aurten Zabalarte klubak. Lakuntza-Aralar mendi lasterketan abiatu ondoren, goizeko 10:00etan lasterketa solidarioa antolatu du Zabalartek Luciarnaga Elkartearen alde. Bertan nahi duten guztiek hartu ahaliko dute parte, plaza-ri buelta bat ematea baita kontua. Dorsalak salgai egonen dira herriko tabernetan eta egunean bertan (2 euro). Ekimenagaur, ekainaren 3an, ostiralean, aurkeztuko dute, 18:00etan, Lakuntzako udaletxean.

Bihar Lakuntza-Aralar egitera

Lakuntza-Aralar lasterketako ibilbidea zuzenean ezagutu nahi duenak bihar du aukera. Bihar, larunbatean, Lakuntza-Aralar Mendi lasterketako bi ibilbideak egingen dituzte Zabalarte klubekoek eta nahi duten guztiek. Ibilbide luzea egiteko goizeko 8:00etan jarri dute hitzordua, Lakuntzako plazan (3 ordu inguru) eta ibilbide motza egiteko, aldiz, 9:00etan aterako dira (2 ordu inguru).

Triatloia

Zabala eta Mikeo ongi Bilbon

23.a eta 33.a sailkatu ziren

Larunbatean VI. Bilbao Triathlon proba jokatuko zen. Distantzia olinpikoan (1,5 km igerian, 40 km bizikletan eta 10 km korrikari). Ryan Bilie (1:56:22) eta Barbara Riveros (2:09:39) izan ziren txapelkunak 317 triatleten artean. Sakana Triatloi Taldeko Alejandro Zabala 23.a sailkatu zen (2:19:45), eta Hiruki Valle de Egüeseko Jose Ignazio Mikeo 33.a (2:22:01).

Botxa

Iratxo Botxa Txapelketa

Ostiralean

19:00etan: Desesperados / Guillermo-Francisco-Iñaki
20:15ean: Iñigo-Xabier-Jabier / Xabier-Migel-Txutxurri
Larunbatean
19:00etan: Iñigo-Xabier-Jabier / Desesperados
20:15ean: Tximeleta / Lirainak
Igandean:
19:00etan: AHTrík Ez / Lirainak

Areto futbola



Magna Gurpeak irabaziko ote zuen ?

Atzo jokatu zen Magna-Gurpearen eta Bartzelonaren arteko Play-Offetako finalerdietako itzuliko partida

Lehen mailako areto futboleko titulua erabakitzeko Play-Offetako finalerdietako joaneko partida jokatu zuten larunbatean Magna Gurpea Xotak eta Bartzelonak Palau Blaugranan. Talde berdeak ezin izan zuten sorpresa eman eta 3 eta 0 galdu zuten Bartzelonaren kontra. Partida lehia-tua izan zen, baina Magna-Gurpeak makina bat aukeragaldutuz, punteria falta, zorte txarra eta Bartzelonako Paco Sedano atezaina zirela eta.

AZKENEKO BALA, ATZO

“Balabat geratzen zaigu, bueltako partida etxean jokatzearena, eta erabilikodugu” adierazi zuen Imanol Arregi entrenatzaileak. Itzulerako partida 21:00etan jokatu zen, atzo, eta ordurako Guaixeko erredakzioa itxiz zegoen. Atzo Magna irabaziko balu, berdinketa hausteko hirugarren partida Bartzelonan jokatuko litzateke, igandean, 20:30ean. Bartzelonak irabaziz gero, bera sailkatuko litzateke final handirako.

IMANOL, ONENETAKOA

Areto Futboleko Entrenatzaileen Elkartek Imanol Arregi bigarren entrenatzaile onena izendatu du. Tuterako Aspil-Vidaleko Jose Lucas “Mena” izendatu dute entrenatzaile onena.

Txirrindularitza / BTT

Irurtzungo bizikleta festan gustura

Txirrindula martxan 100 partaidetiko gora bildu ziren eta tailerretan eta jolasetan giro polita izan zen

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Immigrazio Zerbitzuak eta Euskara Zerbitzuak antolatuta, igandean Irurtzunen bizikleta festa ospatu zen. Ekimena antolatzeko ondoko taldeen laguntza izan zuen Mank-ek: Irurtzungo Udala, Barranka Txirrindularitza Taldea, Berri Bikes denda, Muruzabal bizikletak eta Sakanako ikastetxeak eta guraso elkarteak.

Lehenik eta behin, haureta gurasoek bizikleta hartu eta Irurtzun eta Arakil inguruan bizikleta ibilbidea egin zuten, 2 ordu ingurukoa. 100 partaide inguru bildu ziren Barranka Taldeko Txirrindulariek prestatu zuten ibilbidean. Ondoren, Irurtzungo Foru plazan jarraitu zuen festa. Auzate osasuntsua dastatzeko aukera izan zen: marokoar pastak, fruta freskoa eta fruitu lehorrak. Bitartean, jolasak izan ziren etxeko txikiendako eta Muruzabal bizikletak dendako Joxi Lazkozek eta Berri Bikes dendako Joakin Beltran de Herediak bizikleta nola



Bizikleta festarekin hainbat helburu lortu nahi direla adierazi digute antolatzaileek. “Helburuak anitzak dira: bizitza osasuntsua, ariketa fisikoa, elikadura osasuntsua, kultur arte-kotasuna –erlazioa-harreman osasuntsuak-, birziklatzea –dagoeneko behar ez ditugun gauzak behar dugunengatik trukatzeari dirua erabili gabe, zabor gutxiago sortuz...-, bizikleta konpontzen ikastea bakoitzaren autonomia bultzatuz, Sakanako bidexka eta herri ederrak ezagutzera ematea, familian eta lagun arteko jarduerak bulkatzea, munduko jolasak ezagutzera ematea, euskararen erabilera bulkatzea...”. Hurrengo urtean Aranatz aldean antolatuko da eguna, Etxarri Aranatz zurrerik.

konpondu azaldu zieten bertan bildutako neska-mutikoei.

“Antolatutako jarduera oso ondo baloratzen dugu. Baina baduguzer pentsatu eta hobetu ere, jostailu eta kirol materialaren trukeko hau-rrak nola animatu, esaterako. Izan

ere, garrantzitsua deritzogu etxean dugun eta behar ez ditugun gauzei beste baten eskuetan bizitza luzatzea, eta erosteari alternatiba bilatzea” adierazi du Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagotia.

Karatea

120 karateka Irurtzunen



Maiatzaren 21ean Irurtzungo Karate Txapelketa jokatu zen. Nafarroako 11 klubetako 120 neska-mutikok hartu zuten parte, tartean Shoto-kan Irurtzun klubekoak. Proba bi txapelketarako baliagarria zen: II. Nafarroako Promozioiko Benjamin Mailako Txapelketa eta Nafarroako Kirol Jolasen Haurren Mailako Jardunaldia.

Atletismoa

Nagore eta Azazeta azkarrenak Ziordian



200 korrikalaritiko gora lehiatu ziren guztira

Euria eta ekaizari aurre eginez, 200 korrikalari inguruk hartu zuten parte III. Ziordiko Herri Lasterketan. Ziordia Running taldeak antolatu zuen proba, Dantzaleku Sakana klubaren laguntzarekin eta babesle ugariaren sustenguekin. 88 neska-mutiko kategoriatxikiko probetan lehiatu ziren eta 111 korrikalarik osatu zuten proba nagusia. Eguraldiak ez zuen behar bezala

erantzun, baina korrikalariek onartu zuten gustura ibili zirela Ziordiko kaleetan barna korrika.

Hasieran txikien probak jokatuko ziren. Aurrebenjamin mailan 60 korrikalari izan ziren, 34 mutiko eta 26 neskato, benjaminetan 11 mutiko eta 7 neska, kimuetan 3 mutileta 5 neska eta haurren mailan 2 neska. Guztiak pozik egin zieten aurre probei. 17:30ak inguruan abiatu zen helduen proba (6,9 km). Ziordiko herri gunea ardatz

hartuta prestatutako zirkuituari 3 itzuli egin zizkieten, aurten kontrako norabidean. Denboraldi bikaina egiten ari den Javier Nagore zizur tarra izan zen azkarrena (20:58). Minutu erdi pasako alde aterazioan Dani Martinez iruindarri (21:34). Sergio Garcia de Eulate altsasuarra izan zen hirugarrena eta lehen sakandarra (22:11).

Emakumezkoetan Izaskun Beunza olaztiarra izan zen txapel-duna eta lehen emakume sakandarra (25:32). Minutu pasako alde aterazioan Ginesa Lopez altsasuarri (26:42). Karmele Ormazabal zegamarrak osatu zuen podiuma (28:28). Bukaeran primerako auzateaz gozatzeko aukera izan zuten korrikalariek.

Paris 365 jantoki sozialerako elikagai asko

Jakina denez, Ziordiko Herri Lasterketa proba herrikoi eta solidarioa da. Izena emateagatik ez da dirurik ordaindu behar; baina Paris 365 jantoki sozialerako elikagaiak ematea eskatu zitzaizen korrikalari-ri. “Ekaitzaren unea alde batera utzita, gainontzeko guztia ongi joan zen. Kontentu gaude Paris 365 jan-

Sakandarrak Ziordiko herri lasterketan (6,9 km):

Gizonezkoak:

1.	Javier Nagore (Zizur)	20:58
3.	Sergio Garcia de Eulate (Alts.)	22:11
4.	Alberto Martinez (Lak.)	22:25
5.	Raul Audikana (Olaz)	22:49
6.	Iraitz Senar (Lak.)	23:10
7.	Aitor Mozo (Lak.)	23:23
8.	Felix Benjumea (Alts.)	23:28
9.	Patxi Cano (Alts.)	23:38
10.	Antton Zelaia (Urd.)	23:38
13.	Iker Flores (Urd.)	24:09
14.	Andoni Azanza (Alts.)	24:16
15.	Iban Sobreto (Alts.)	24:32
16.	Jorge Iradi (Alts.)	24:32
20.	Jorge Holgado (Alts.)	25:27

Sailkapen osoa: www.guaixe.eus

toki sozialerako elikagaiez 2 furgoneta betegenituelako. 500 kilo elikagai inguru bilduko genituen. Horretaz gain, 200 litro esneko ekarpena egin dugu eta auzatean erabiliezziren elikagaiak eta korrikalariei oparitzen zaizkien produktu loteak ere, soberan geratu zirenak, jantokira bideratu ditugu. Alde horretatik oso kontentu gaude. Eta, bestetik, lasterketan parte hartu zuten korrikalariek adierazi ziguten oso ongi pasa zutela. Beraz, gu ere oso pozik” adierazi digu Ziordia Runningeko Jose Ramon Ramirezek. Halaber, babesleenskuzabaltasuna eskertu zuten.

Mendi lasterketak

Beñat Katarain bosgarrena VIII. Zuzenien Km Bertikalean

Sakandarrak VIII. Zuzenien Igoera Bertikalean:

1.	Iban Murua	31:37
5.	Beñat Katarain	36:09
18.	Mikel Rubio	39:26
41.	Asier Reparaz	43:24

Igandean jokatu zen, Azpeitian, VIII. Zuzenien Igoera Bertikala (3,3 km). 83 korrikalarik osatu zuten proba eta Iban Murua (31:37) eta Maite Maiora (38:23) izan ziren azkarrenak. Beñat Katarain lakuntzarra bosgarrenasailkatu zen, lehensakandarra (36:09).

NORDIN JDI JAKAN

Nordin Jdi mendi korrikalari lakuntzarra Jakako Ultra Trailean lehiatu zen (100 km). Bero gehiegi egiten zuenez, asko edan behar izan zuela kontatu digu Nordinek. “Eta horregatik, proba despeditzeko 30 km-ren faltan utzi egin behar izan nuen proba, tripakominak jota” adierazi digu. Hurrengo erronka Ehunmilak Ultra Traila du.

Parapentea

Hegalarien eguna



Euren zaletasunaz gozatzea espero dute parapentelariak. BAIZA PARAPENTE TALDEA

Bihar, 9:00etatik aurrera parapentelarien bilgune izango da Iturmendi

Baiza Parapente Taldeak dena prest dauka biharko, Sakana Parapente Eguna 2016 festarako. Festa antolatzeko, Iturmendiko Udalaren eta Ximona Gaztetxearen laguntza eta hainbat entitate eta komertzioen babesa izan dute. Goizetik arratsaldera arte hegan egitea, hori da

parapentelarien asmo nagusia. Eguraldia eta haizea lagun izatea, ez dute besterik eskatzen.

Baizatik adierazi dutenez, Sakana Parapente Eguna Euskal Herriko topaketa hoberenen artean dago. Aurreko urtean 100 parapentelari baino gehiago bildu ziren. Aireratzeko gunetara igoera gidatuak eta garraio etengabea izanen dira.

Sakana Parapente Eguna (Iturmendi)

9:00etan: Izen ematea.
10:30ean: Lehen erremontea edota oinezko igoera gidatua.
11:30ean: Non Stop hamaiketako.
20:00etan: Kontzertua: Vicios Viejos.
21:00etan: Afari herrikoia eta zozketak.
23:30ean: Kontzertuak: Nazarenos del Norte, Alerta Gorria eta Oso Basatis.
*** Egun guztian barna bertako produktuen azoka eta biplazak.**

sakanaparapente.blogspot.com.es

Informazio guztia.

Saskibaloia

Andra Mari eta Irurtzun taldeen saskibaloitopaketa

Bihar, larunbatean, 12:00etan, Andra Mari ikastolan

Biharko saskibaloitopaketa antolatu dute Etxarri Aranazko Utzubar Txikin dagoen Andra Mari ikastola berrian. Denboraldia agurtzeko topaketa bat izango da, Andra Mari eta Irurtzun taldeen artekoa. 2004-2005 eta 2006an jaiotako neska-mutikoei hartuko dute parte topaketan

Andra Mari ikastola taldearekin Julen Jauregi, Oinatz Zelaia, Unai Zelaia, Ibai Arana eta Kemen Zabala ariko dira, losu Mendiola entrenatzailearen begiradapean eta CBI Lacturale Irurtzun taldearekin, aldiz, Irati Huarte, Silvia Carvallo, Maialen Senra, Irati Garro, Irati Cuevas eta Alejandro Vazquez, Marta Fernandez entrenatzailearen esanetara.



Txirrindularitza

Juniorrek XXI. Udaberri Trofeoa etzi Altsasun

Igandean, 10:30ean, Altsasuko udaletxe paretik

Junior mailako txirrindulariek XXI. Udaberri Trofeoa dute jokotan igandean, 10:30ean, Altsasun. Burunda Txirrindularitza Klubak antolatutako probak 91 km dituztira, eta Altamirako portua lautan igo beharko dute txirrindulariek, proba luze eta ikusgarrian.

Maiza 7.a Eskirotzen eta Zia 7.a Beran

Larunbatean, Eskirotzen, Burundako Quesos Albenizeko Xabier Maiza 7.a sailkatu zen, Juan Riaño 11.a, Hodei Zia 21.a, Oihan Vinagre 28.a eta Alex Unzilla 29.a. Taldeka 5.ak izan ziren Quesos Albenizekoak. Igandean, Beran, Toyota Armentia Ibon Ruizek irabazi-

tako 78 km-ko lasterketan (1:53:36), Hodei Zia 7. sailkatu zen, Alex Unzilla 12., Xabier Maiza 18., Juan Riaño 26. eta Oihan Vinagre hogeita hamargarren. Quesos Albeniz hirugarren talde onena izan zen.

Pison bigarrena eta Maialen lehena Murietan

Kadeteak Murietan lehiatu ziren. Arabarrak taldeko Jokin Murgialdaik irabazi zuen (1:20:54). Quesos Albenizeko Marcos Pison bigarren sartu zen, 43 segundora, eta Intersport Irabiako Imanol Galarza bostgarren. CAF Transport Engineering taldeko Maialen Aramendia iturmendiarrak lehen emakumea izan zen, sailkapen orokorrean 45.a. Gainerakosakandarren denborak: www.guaixe.eus.

>>

VI. Sakana Burunda, bailarari buelta bizikletan

Bihar abiatuko da, 8:30ean, Altsasutik. Bi aukera izango dira: ibilbide osoa, Aralarreko San Migelera itzoko dena (124 km) eta Aralarreko itzoko ez dena (100km)

Barranka Txirrindularitza Taldeak VI. Sakana Burunda txirrindularitza martxa prestatu du biharko. Helburua Sakana ezagutaraztea eta bizikletarekin egun ederra pasatzeko da. Proba antolatzen duen Lacunza Calor Group, Rural Kutxa, SELK, Altsasuko Udala eta hainbat komertzio eta erakunderekin babesa jaso du.

Bi ibilbide: 124 km edo 100 km

Aurten ere bi ibilbide izanen dira: ohikoa (124 km), eta laburrago bat (100 km). Bihar, goizeko 8:30ean Altsasuko Foru Plazatik aterako dira txirrindulari guztiak, Ziordirantz. Han buelta hartuta Urbasa-ko Altamira portua igoko dute, Etxarriaraino joateko. Han Lizarragako Katea igo, Arbizutik jaitsi, eta aurrera egingo dute, Uharte Arakileraino. Ibilbide luzea hautatu dutenek San Migelgo portua igoko dute, Baraibartik Oderitzera jo eta Madotzeko portua jaitziz, buelta hartu eta, Urdaindik eta San Pedrotik barna, Altsasuraino jotzeko (124 km, 2.011 metroko desnibel positiboa). Ibilbide laburra hautatzen dutenek, aldiz, Uharte Arakileraino helduta Aralarrenantz jo beharrean aurrera egingen dute, Zuhaturaino. Han buelta hartu eta Altsasuko helmugarantz joko dute, Urdaindik eta San Pedrotik

San Migelgo igoera, kronometratuta



Uharte Arakildik (456,30 m) San Migelera (1216 m) bitarteko 9,4 km-ko igoera kronometratua izango da, proba ez lehiakorrari bizitasuna emateko. Aurreko edizioan 161 txirrindulari hartu zuten parte eta San Migelgo kronoigoeran azkarrena Felix Valcarce iruindarra (32:17) izan zen. Lehen edizioan Carlos Palacios ezarritako errekorra (30:27) ez da gainditu. Lehen sakandarra Pablo Urtsun txirrindulari urdiaindarrak izan zen, sailkapenean hirugarrena (33:12). Guaixe-ko erredakzioa xterakoan 72 txirrindulari zeuden izena emanda.

Foru plazara helduz (100 km, 1.050 m desnibel positiboa). Proba trafikoa zabalik dagoela gauzatuko da, San Migelgo igoera kronometratua izan ezik.

Oparia eta zozketak

Txirrindulari guztiek oparia jasoko dute. Gainera, babesleek emandako opari lote sorta ederra zozketatuko da. San Migelgo kronoigoerako onenendako trofeoa izango da. Helmugan, guztiek bapo bazkaltzeko aukera izango dute.

Izena emateko

Aurrez izena emateko www.barrankatt.com web orrira jo behar da. Bestela, egunean bertan galdetu daiteke, Gure Etxean,

beti ere antolakuntzak jarritako 300 parte-hartzaileen muga gainditua ez badago.

Josu Zabala 3.a Nafarroako Itzulian

Lizarteko Richard Carapazek irabazi zuen afizionatuen 55. Nafarroako Itzulia. Rural Kutxa talde sakandarreko Josu Zabala hirugarrena eta lehena nafarra izan zen, 10 segundora. Mendiko maillo-ta bere taldekide Manuel Solak jaso zuen. Rural Kutxako Odei Juangolakuntzarra 4. nafarra izan zen eta Telco m taldeko Hiriberriko Pablo Villar 12. nafarra.

Automobilismoa

Flores hirugarrena eta Lopez de Goikoetxea FL mailan lehena Aian



Lopez de Goikoetxea. ODEIRACING

Igandean IX. Aiako Igoera jokatu zen, Euskal Herriko eta Nafarroako Mendi Igoeren Txapelketetarako baliagarria. 60 pilotu inguru lehiatu ziren, tartean Sakana Motorsportekobi, eta horietatik 52k lortu zuten proba despeditzea. Aitor Zabaleta (Lola BMW) izan zen azkarrena (2:10.430). Garikoitz Flores lakuntzarra (BRC) hirugarrena sailkatu zen (2:12.663). Iban Lopez de Goikoetxea pilotu olaztiarrak ere (R5 GT Turbo) lan polita egin zuen.

18.a sailkatu zen sailkapen orokorrean, baina bere kategorian, FL mailan, zeuden 17 pilotuetatik lehena izan zen olaztiarra.

kultura >>

Sakanako musika sorkuntzatik artelanak



Astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 19:00etara, Etxarri Aranazko kultur etxean ikusgai. Astelehenean mustutze ekitaldia izanen da

Musikar erakusketa Andra Mari ikastolaren arte proiektuaren 3. edizioaren emaitza da. Sakanako ikastolek bi urtean behin aurrera eramaten duten egitasmoa horren bidez ibarreko sortzaileen sorkuntza lanak ikasleen sormen lanerako bitarteko bihurtzen dira. Literatura eta eskultura langai izan ondoren, aurtan musika izan dute Andra Mari

ikastolako ikasleek (HH 3, LH 1., 3., 5. eta 6. eta DBH 2 eta 4).

Hala, Vendetta, Tximeleta, 4nek, Hesian eta Kaotikotaldeetako kideen bisita jaso dute. Kantuen sortze prozesua, taldearen ibilbidea, biografia... Datu horiek jaso zituzten ikasleek eta haietan oinarrituta, egileak bere abestian edo abestietan esan nahi izan duen hori artelan batean bihurtu dute. Taldeka egindako lana izan da eta bakoitzak zer irudikatu, zein teknika erabili... adostu du. Materialak lortu ondoren elkarlanean sortu dute.

Urdiaingo ikasleak bertsoetan

Maiatzaren 20an eman zitaion bukaera Eskola Bertsoetan proiektuaren 2015-2016 ikasturteari. Otsailetik maiatzera arte gela barruan sortutakoak plazan aurkeztu zuten eskolako ikasleak. Proiektu horrek Bertsoalaritza Irakaskuntzan du jatorria, gainerako ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako 6. mailan lantzen dena. 2013-2014 ikasturteko balorazioa egiterakoan, hurrengo ikasturtean bertsoa modu berezian lantzeko aukera aurkeztu zuen 6. mailako tutoreak, eta hortik sortu zen bertsoalaritza adimen emozionalarekin lotzeko ideia. Ikasturte oso eman

korra izan zen, Kaluxan egin zen bertso saio batekin bukatu zena.

Emaitza ikusirik, bertsoalaritza Lehen Hezkuntza osoan txertatzeko aukera ireki zen. Horretarako, Sakanako zenbait enpresatan proiektua aurkeztu zen. Sakana kooperatibak, Viscofanek eta Magoteauxek egin zituzten diru-ekarpenekin, ikasturte honetan Urdiaingo eskolan abiatu zen egitasmoa.

Lehen Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 5. mailako ikasleek 10 orduko ikastaroa jaso dute, eta 4 mailakoek berriz 20 ordukoa. Nork bere ahalen arabera, 13 bertso sorta egin dituzte, eta horiek aurkeztu ziren



Urdiaingo auzoan ikasle, irakasle eta gurasoek aretoa bete-bete zeukatela. Ordu eta erdiko saioan, eta Eneko Lazkozen laguntzarekin, hainbat doinu, gai eta ariketa entzun eta ikusi ahal izan ziren. Saio atsegin eta arina, egitasmoak merezi bezalakoa, eta hurrengo ikasturtean jarraipena emateko gogo eta ilusio piztaileak izan zen.

Dantzariak oholtzara

Igandean, 18:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Altsasuko Musika eta Dantza eskolako dantza ikasleak ikasturtean bigarren zapatuko dute Iortia eskenarioa. Martxoan eskainitako jaialdian euskal dantzak izan ziren ardatza. Etzikoan, berriz, euskal dantzetan eta bestelako doinuak oinarritutako koreografiak eskainiko dituzte.

Zirku erakustaldia

Asteazkenean, 17:30ean, Etxarri Aranazko kultur etxean

Zirko tailerra bizpahiru urte martxan dela Etxarri Aranazten. Eta ikasturte bukaeran ohi dutenez, hartutako abilezien erakustaldia egingen dute. 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoak izanen dira erakustaldia eskainiko dutenak. Ainhoa Juanizekin trebatu dira astelehenetan, 11 handien taldean eta 9 txikienean. Helduen taldea ere bada, 10 ikasle ditu Juanizek, baina azken horiek ez dute erakustaldian parte hartuko.



bazterretik

Juankar Lopez-Mugartza

Sakanako euskal idazle... gazteak?

1971n Umeen Deia aldizkarian argitaratutako lan guztiak bildu ziren liburu batera, eta Sakanako herri guztietako haurren narrazio laburrak, pasarte eta bestelakoak jaso ziren han.

Altsasun haur hauek izan ziren idazleak: Marcelino Ansa, Joxe Arregi (Asteasukoa) eta Rufino Larrinaga (Iruratarra). **Arbizun**, Jose Mendinueta: "Emen denok Euskeraz egiten dugu, baño ez dakigu ondo eskribitzen, ez daugubie erakusten da". **Arruazun**, Ana Maria Ganboa. **Bakaikun**, "N." letraz bere burua izendatzen zuena. **Etxarri-Aranatz**, L. de Sabando Ezkerra: "Fan zan illatian inaguratu zan cineat: ederra kanporatik eta polita barnetik. Inaguratu zan jeyan, eta kantarak kantatu zabien eta dantzariak dantzatu zian oso poleki."

Lakuntzan, Maria Reyes, Maria Milagros eta Joxe Franxiku Flores eta Arregi: "Nere erria dago Barranka zuloan, San Donatoren eta San Migelen erdia. Gure erri ointan euskeraskogalduda. Gure aitak eta amak oyu egiten degu derder berbagatik, eta orrengatik euskera aurrera demagu gure fameliyan". **Lizarragabengoan**, Jose Ignacio, Maria Jesus, Maria Josefa eta Reparaz ahizpak: Angelines, Maria Esther eta Maria Jesus; eta Miguel Angel eta Maria Flora Lacunza: "Nere erria chikia, baño polita. Emen ameika iche dire; bertatik pasazen da ubeldia; izena dakio Arakil, eta dago zubi bat, eta andik juten da Arbizura, eta beste

aldetik Echarrira. Gende guchi gare. Aste egunean ongi loten naiz, baño Jeian ez". **Lizarraga-Ergoienan**, Inmaculada eta Maria Jesus Navarro Aristorena: "Maistra berriya degu oso ona, Olazti'koa; Ana Mari du izena. Nik oso maite dut."

Olaztin, Juanita Solano, Jose Juan eta Mari Luz Zubiria, Fco. Javier Albistur, Sebastian Aldaz, Joseba Andoni Ayerdi, Marzelino Galparsoro, Joseba Garmendia, Jenaro Imaz, Pedro Mari Iraurgi eta Terexe Iraurgi: "Olazti da erri bat milla bizilagun dauzkana, eta dago Urbasa, Ziordia Naparroako azkeneko erriaren erdian, eta Beko Basoa Altzasu, eta erditik pasatzen da Burunda erreka kangreju eta amorrar goxuakin. Dauka eliza ederra. Lengo denboran izandu zan gaztelua eta eliza. Oraindik ikusten dira leyoan eta zuloetan balen-txoko eta arrastro ugari". **Unanuan**, Tere Abezo, Arantxa Etxezarreta eta Angel Nabarro.

Urdianen, Angelines eta Maria Rosario Acha, Benito, Maria Micaela eta Sebastian Aldaz, Jesus Maria Aracama, Francisco Juan Ayestaran, Miren eta Milagros Celaya, Juan Jesus Echeverria, Angel Mari eta Begoña Galarza, Natalio Garmendia, Maria Coro Goicoechea, Francisco Irigoyen, Jose Ignacio Ostiza, Josefina San Roman, Migel Angel eta Antonio Zubiria, eta Jose Luis Zufiaurre.

Aipatu ditudan idazle hauetatik zenbat ezagutzen dituzue? Eta Lixarregoko Maria Isabel Lakuntza orduko haurrak idatzi zuen bezala: "Zorionak eta pakea euskaldun guziori!"

Ekainak 25

Karunesh meditazioa
Omkar Carabiarekin
Ekintzaile espirituala
Amari Proiektuaren zuzendaria

20:30ean · 10€

Kontzertua
Aritz Bizkai Kontzertua
Harpa-jotzailea: Oihane Igerabide
Perkusioa, neya eta lauda:
Joan Miró
Gitarra-jotzailea: Unai Rodriguez

24:00etan · sarrera 10€

Ekainak 26

Tailerra
"Arimaren kantuak eta dantzak"
Lena Andrea Ulrich

10:00-14:00 eta 16:00-18:30 · 70€

Plaza erreserbatzea
derrigorrezkoa da
Kontaktua: 630 777 130
www.amariyoga.com
nebani9@yahoo.es

Irurtzungo abesbatzak erronka berriak izanen ditu

Hamar urte bete dituen abesbatzak kontzertu ederra eskaini zuen larunbatean 500 entzuleren aurrean. Emanaldia rekin batera dokumental labur bat ikusteko aukera izan zuten Biaizpe frontoian elkartu zirenak. Hartan Fermin Idareta Goldarazena zuzendariak esaten zuen Irurtzungo abesbatzaren egitekoa aurrera segitzea dela, egindakoa finkatzea

eta gauzak egiten segitzea. Horrela berretsi dio Guaixeri. Aurrera egiteko bi helburu jarri dizkio abesbatzak bere buruari: “20. urteurrenara iritsi nahi badugu gazteak abesbatzara erakarri behar ditugu”, azaldu digu Idareta. Eta gaineratu du, “lanean segi behar dugu, errepertorio zailagoa ikasteko”.

10 urteko ibilbidean esanguratsua egin zaionaz galdetuta Idare-

tak hainbat kontu aipatu dizkigu. “Musikalki, jendeak hobetzeko duen ahalmena. Horrek errepertorio osatuagoa izatea ekarri du”. Abesbatzako kideek duten “konpromisoa eta ilusioa” ere aipatu dizkigu, “haiendako nahiko luke beste abesbatza batzuek entseguetara dugun asistentzia”. Abesbatzako kideen artean dagoen harreman ona ere goraipatu du



Idareta: “abesbatzazatik izanen ez balitz, agian kalean elkar agurtu ere ez liratekeenak kontzer-

tuen ondorengo afarietan elkarren ondoan giro onean ikustea... oso ongi moldatzen dira”.



Alaitasuna **trasteatzen**

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean herri musiken kontzertua

Bi talde lagun dira Legazpiko Alaitasuna errondalla eta Altsasuko Trasteando. Bost urte edo gehiagoko harreman estua dute bi musika erakundeek. Bien arteko harreman horren fruitu da aurten bata bestearen herrian

kontzertua eskainiko duela. Trasteando taldeko Cruz Mari Martinezek azaldu digunez, “helburua da noizean behin folklore eta sokazko musika eskaintzea. Gure herrian, eta eskualdean, toki bat badu musika horrek. Gogoko duen publiko bat badu”.

Eskaera horri erantzun nahian antolatu dute kontzertua. Hura zabaltzeko, eta giroa berotzeko,

lehenik Trasteandok kantu pare bat eskainiko ditu, oholtza Alaitasuna errondailari emateko. Bisitarien bizkar izanen da kontzertuaren ardura nagusia. Haiek bukatzean, bi taldeak elkarrekin despidituko dira eszenariotik. Harremanak senidetze afariarekin segituko du. Legazpiarren bihar-ko bisita udazkenean bueltatuko dute altsasuarrek.

Festak iragartzeko kartel lehiaketa Etxarrin

Etxarri Aranazko Udalak garilaren 30ean hasiko diren festak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du. Bi maila izanen dira, haurren eta helduen mailan. Bietan ere aurkezten diren proposamenek Etxarri Aranatz Festak 2016 leloa idatzia izan beharko dute. Lanek jatorrizkoak izan beharko dute eta haiek sortzeko edozein teknika erabiltzeko aukera izanen da. Helduen mailan lanak A3 tamainan edo 70 x 50 cm luze-zabal tamainako lanak onartuko dira, beti ere euskarri sendobatean aurkeztuta.

Haur eta gaztetxoek mailan Etxarriko ikastetxeetako ikasleek parte hartu dezakete. A4 edo A3 bertikala, tamaina hori izan behar dute lanek eta kartulina bada, hobe. Lau sari izanen dira: Haur



Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako bi mailetan marrazteko materiala eskuratuko dute sari gisa, DBHko irabazleak, berriz, marrazteko materiala eta 50 euro.

Lanak, plika sistema erabiliz, garilaren 1eko 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira Etxarri Aranazko udaletxeko erre- gistroan. Helduen mailako saria 250 eurokoa izanen da. Informazio gehiago nahi duenak Etxarri Aranazko Kultura Zerbitzura jo dezake: 948 460 930 edo 606 239 008 telefonoak edo kultura@etxarriaranatz.eus.

Arretxerendako eta Suarezendako Juul sariak



Juul literatura hauteskundeetan bozkatuenak izan ziren idazle eta ilustratzaileek euren saria eskutan dute. Lodosako kultur etxean egin zuten sari banaketa atzo eta Jon Arretxe eta Castillo Suarez izan ziren sarituetako bi. Mikel Okiñena eskultoreak egingdako Juul sariaren kopia bana jaso zuten. Nafarroako Ikastolen Elkartek haur eta gazteen artean literatur zaletasuna sustatzeko antolatutako ekimen da Juul. 18. edizioan 53 ikastoletako ikasleek parte hartu zuten. Ikasleek 26.000 boto inguru eman zituzten.

Poe antzezlan bihurtua

Gaur, 22:30ean, Altsasuko gaztetxean

Agure baten begi gaixorekin obsesio- natuta dago gizon bat. Kornea arazo bategatik grisa den agurearen begi hori jasangaitza, beldurgarria egiten zaio narratzaileari. Obsesio bihurtuko da eta agurea hilko du. Edgar Allan Poe idazle ipar-amerikarrak *Bihotz salatario* ipuina antzerkirako bakarrik moduan moldatu du Atxteatroak, “publikoa beldurtzeko” asmoz. Iñaki Ziarrustak jokatu du dupsikopataren pape- ra. Mugimenduen bidez adieraz- kortasun berezia lortzen ahalegin- du da. Soinuak entzulea inguratu egingen du. Antzezlan bizkaiera garbi batean egingen du.



21 musikariko banda handia

Motxila 21 igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan

Motxila 21 taldea Etxarrin izanen da etzi. Queen, Barricada, Marea, Emir Kusturica, Herbie Hancock... hainbat talde eta bakarlariren kantuen bertsioekin batera eurenak ere eskainiko ditu Motxila 21k. Taldea Nafarroako Down Sindromea Elkartearen abar- roan sortu zen eta bere kideen artean Aintzane Lizarraga Etxeberria saxofoi-jole dorrobarrak dago. Haiekin batera taldean 9 irakasle dau- de; horietako hiru ere dorrobarrak dira: Ainhoa Lizarraga (akordeoia), Mirian Razkin (saxofoia) eta Andoni Zilbeti (saxofoia eta kitarra-abeslaria).



arkangoa

gautxori

koxka

lezea

urtzi

xume

2,20€

PINTXO

asteburuak
ekainak 3-4-5 eta 10-11-12

SARIAK: 6 AFARI eta 100€ko 6 SARI

Ginatu gure txartela

asteko >> : eguraldia

ostirala

larunbata

igandea

astelehena

asteartea

asteazkena

osteguna

euria: 10%

euria: 50%

euria: 25%

euria: 10%

euria: 15%

euria: 10%

euria: 20%

Min: 9 Max: 22

Min: 12 Max: 19

Min: 11 Max: 21

Min: 12 Max: 25

Min: 13 Max: 27

Min: 14 Max: 28

Min: 15 Max: 23

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	24	8.5	7.5
Etbarri A.	25.8	9.4	16.9
Altsasu	24	7.5	10
Aralar	18.3	4	13.3
Urbasa	21	4	7.1

: ilargiaren aldia>>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
5	12	20	27



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253

Arkinoturri Industrialdea • Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 • Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide sarituak

1.- Jesus Mari Goikoetxea Velar (Lakuntza)

2.- Idoia Astiz Landiribar (Etxaleku)

3.- M^a Angeles Garciandia Goñi (Urdiain)

4.- Eugenia Lazkoz Flores (Lakuntza)

Ekain berri









>> 11 galdera

Odei Juango

Animali exotikoak dituen lakuntzarra

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



GUAIXE FUNDAZIOA MEKNA proiektu izendatu du Nafarroako Gobernuak

Honek esan nahi du, Guaixeri emandako diruaren zati bat itzuliko zaizula errenta aitorpenean



BEHERAKO EKARPENETAN

150€

GORAKO EKARPENETAN

%40 bueltan

%80 bueltan

Milesker zure babesagatik!



1. Maskota bereziak dituzu.
Gehien bat narrastiak ditut. Haien artean lau kameleoi; bi geko, kameleoiak baino txikiagoak dira eta basamortuan bizi diren animaliak dira; baranoa eta igel tropikalak, zuhaitzetan bizi dira. Gainera, arrain tropikalak ere baditut arrainontzi batean eta guakamaioa. Horiek etxean ditut. Baratzean ostrukak eta ohikoagoak diren animaliak ditut: oiloak, ahateak, txakurrak... Kameleoiak Madagaskarrekoak dira, gekoak uste dut Afrikakoak direla, igel tropikalak eta guakamaioa Hego-Amerikakoak, baranoa Afrikakoa...

2. Nola hasi zinen animalia hauek zaintzen?
Umetatik gustatu izan zaizkit animaliak. 14 urterekin edo lehenengo kameleoa erosi nuen, orduan hasi nintzen animalia exotikoekin. Iguana bat izan nahi nuen eta amak ezetz esan zidan. Aitak kameleoa utzi zidan, baina iguana ez. Iguanak erraldoiak dira.

3. Nola lortzen dituzu?
Kameleoa Iruñeko animalia dena batean erosi nuen. Besteak Internet bidez, jakin nuelako Internet bidez merkeagoak zirela. Partikularrek saltzen dituzte edo Interneteko dendetan. Guakamaioa Leoneko pertsona bati ero-

si nion. Burgosen gelditu ginen, bidearen erdian.

4. Horrelako animaliak lortzea erraza da?
Bai, erraza da. Badago jendeak hezten dituenak eta denetarik duzu. Baranoak ihes egin zuela eta, jendeak esaten zidan animaliak legalak ote diren; bai, dena legala da, paperak dituzte. Edozein etxe-animalia bezala.

5. Animalia hauek ez dira arriskutsuak.
Beste narrasti batzuk ingurumenarako arriskutsuak izan daitezke ugaltzen direlako. Baina hauek ihes egiten badute bi hilabetetan hilko dira eta ez da ezer gertatuko. Eta norbaitek aurkitzen badu, ez dute ezer egiten.

6. Zaintza bereziak behar dituzte?
Bai, bereziki hezetasuna eta beroa behar dute. Beroa ematen duen bonbilla bat eta izpi ultramoreen beste bat behar dute, bitaminak lortzeko, eta abar. Interneten dituzten behar eta zaintza guztien fitxak daude, eta bertan nongoak diren, bertako klima, eta beste aipatzen dute.

7. Zer jaten dute? Nola lortzen duzu janaria?
Gehien bat kilkerak jaten dituz-

te. Mokotarroak, larrapoteak, matxinsaltoak, sagu txikiak... horrelako gauzak. Janaria lortzeko bi aukera daude: zuk hezten dituzue edo erosten duzu. Kasu batzuetan hezten ditut eta beste batzuetan erosi.

8. Beti terrarioetan egoten dira?
Eguraldi ona egiten badu kalera ateratzen ditut eguzkia hartu dezaten. Nahiz eta bonbillek eguzkia simulatzen duten, hobe da benetako eguzkia hartzea. Terrarioak etxean ditut, nahiko lekua behar dute. Igelena txikia da, baina kameleoienak metro bateko altuera izango du, gutxi gorabehera.

9. Familiak zer esaten dizu?
Ez didate asko esaten. Egunen batean etxetik botako nautela, baino gutxi gehiago.

10. Jendea animaliak ikustera etortzen da?
Bai, koadrilak eta herriko umeek eta gaztetxoek lora edo muskerrak ateratzeko eskatzen didate.

11. Zein da gogokoen duzun animalia?
Loroa. Oso maitakorra da, zure gainean dago adeitasuna eskatuz eta berari kasu egitea nahi du beti. Narrastiek ez dute maitasun hori ematen.